Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

# EMAKUME IDAZLEAK LEHEN LERRORA

## XVIII. ETA XIX. MENDEKO EUSKAL EMAKUME IDAZLEAK LANTZEKO PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Master Amaierako Lana

Unibertsitate Masterra Bigarren Hezkuntzako Irakasletzan

2020/2021

Amaia Abucide Aylagas

**Unibertsitate Masterra Bigarren Hezkuntzako Irakasletzan**

Master Amaierako Lana

# EMAKUME IDAZLEAK LEHEN LERRORA

XVIII. ETA XIX. MENDEKO EUSKAL EMAKUME IDAZLEAK LANTZEKO PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Amaia Abucide Aylagas

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA**

**Ikaslea**

Amaia Abucide Aylagas

**Izenburua**

Emakume idazleak lehen lerrora. XVIII. eta XIX. mendeko euskal emakume idazleak lantzeko proposamen didaktikoa.

**Masterra**

Unibertsitate Masterra Bigarren Hezkuntzako Irakasletzan

**Ikastegia**

Giza Eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

**Tutorea**

Juan Karlos Lopez Mugartza Iriarte

**Saila**

Giza Eta Hezkuntza Zientziak Saila

**Ikasturte akademikoa**

2020/2021

**Seihilekoa**

Udaberria

*Badakit, enzunaz beste gabe, neskatx gazte baten izena dagoala itxatsirik liburutxo onen aurkean, jardungo dutela siñuka ez gutxik, diotela beren artean, iñoren lumaz janzi nai duela bela-txikiak; au da, besteren bearrak artu nahi ditudala neretzat; dagokiola neskatxa bati bururik ausitzea liburugiñen: asko duela gorua, naiz jostorratza zuzen erabiltzea. Nola nik siniserazoko diet askori, euskeratu ditudala erdaldun jakitunak argitaratu dituzten Ipuiak? Nolako arrotasuna berriz latiñezko itzkuntzarekin liburu onen asmoa agertzea? Orretarako bear litzake jakitea euskera, gaztelania eta latiñezko iru izkuntzak. Zein gauza sinisgaitza neskatxa batengan!* (Mogel, 1804: 9).

# LABURPENA

Hezkuntza behin eta berriz aldatzen doa, eta garai eta gizarteari moldatzeko beharra etengabekoa da. Horrenbestez, eraldatzeko eta berritzeko aukerak daude, eta Nafarroako curriculum-a genero eta ikuspuntu feminista eta inklusibo batetik aztertuta, hutsune asko ditu oraindik.

Honenbestez, arazo horri aurre egiteko, edo berdintasunerako bidean ale bat jartzeko helburuarekin, emakume idazleak lantzeko eta ezagutarazteko proposamen didaktiko bat sortzea da helburua. Nerabe, zein haurrentzat oso garrantzitsuak izaten dira ikasgai eta arlo ezberdinetako erreferenteak eta pertsonak ezagutzea. Askotan, eskola eta akademia munduko pertsona nabarmenenak soilik gizonezkoak izaten dira, eta horrek ez du gizartearen ordezkapen duina gauzatzen.

Beraz, lan honetan, Euskal Hizkuntza eta Literaturaren arloan, euskal emakume idazleen biografiak, errepaso historikoa, eta horiek lantzeko unitate didaktikoa sortzea du helburu. Hori garatzeko marko teorikoan historiaren errepasoa garatuko da testuingurua ulertzeko asmoz. Bigarrenik, historian zehar egondako emakume idazleen bizitzak ezagutzeko biografiak azalduko dira. Azkenik, XVIII. eta XIX. mendeetako emakume idazleak lantzeko unitate didaktikoa proposatuko da.

Hitz gakoak: Literatura, emakumea, euskal emakume idazleak, Euskara eta Literatura, euskal literatura, proposamen didaktikoa.

# RESUMEN

La educación va cambiando una y otra vez y la necesidad de adaptarse a la época y a la sociedad es constante. Por tanto, existen oportunidades de transformación e innovación, y el análisis del currículo navarro desde un punto de vista feminista e inclusivo sigue presentando muchas lagunas.

Por lo tanto, el objetivo es crear una propuesta didáctica para trabajar y dar a conocer a las mujeres escritoras con el objetivo de hacer frente a este problema o dar un paso en el camino hacia la igualdad. Tanto para los adolescentes como para los niños y niñas es muy importante conocer a referentes y personas de diferentes materias y áreas. Muchas veces, las personas más destacadas del mundo escolar y académico son solo hombres, siendo una representación indigna de la sociedad.

En este trabajo, en el ámbito de la lengua y la literatura vasca, el objetivo es poner de relieve las biografías de las escritoras vascas, y realizar una unidad didáctica para trabajarlas. En el marco teórico para su desarrollo se hará un repaso de la historia con el fin de comprender el contexto. En segundo lugar, se expondrán biografías para conocer las vidas de las escritoras a lo largo de la historia. Por último, se propondrá una unidad didáctica para trabajar las mujeres escritoras de los siglos XVIII y XIX.

Palabras clave: literatura, mujer, mujeres escritoras vascas, Lengua Vasca y Literatura, literatura vasca, propuesta didáctica

# RESUME

Education changes repeatedly, and the need to adapt to time and society is constant. Therefore, there are opportunities for modification and renewal, and the curriculum of Navarre, viewed from a genus and feminist and illusory point of view, still has many vacancies.

The purpose, therefore, is to produce a didactic proposal for the cultivation and recognition of female writers, to deal with this problem, or in order to place a specimen on the path to equality. As a teenager, it is important for children to know the referees and people of different schools and fields. The schools and academies of the world are often only men, and this does not constitute a dignified representation of society.

So, in this work, in the field of Basque language and literature, the biography of Basque women writers is intended to create a didactic unit to work on them. In the theoretical frame of development, a review of history will be developed with the aim of understanding the context. Secondly, biographies shall be given for the history of the lives of women writers. Finally, a didactic unit shall be proposed for the cultivation of female writers in the eighteenth and nineteenth centuries.

Key words: literature, woman, Basque women writers, Euskara and Literature, Basque literature, didactic proposition.

# AURKIBIDEA


1. **SARRERA** 1
2. **GAIAREN HAUTAKETAREN ZERGATIA** 2
3. **HELBURUAK** 3
4. **MARKO TEORIKOA** 4
   - **4.1. CURRICULUMA** 4
   - **4.2. IKERKETATIK ERREALITATERA** 6
   - **4.3. EMAKUMEEN LEKUA EUSKAL LITERATURAN** 8
   - **4.3. EMAKUME NABARMENEN BIOGRAFIA LABURRAK** 9
     - **Bizenta Mogel** 9
     - **Rosario Artola** 10
     - **Maddi Ariztia** 10
     - **Julene Azpeitia** 11
     - **Rufina Azkue** 11
     - **Errose Bustinza, *Moñariko-Manariko*** 12
     - **Sorne Unzueta, *Urtasus*** 13
     - **Julia Gabirondo, *Maite- Jule*** 15
     - **Pilar Lekuona** 16
     - **Balendiñe Albizu** 16
5. **MARKO METODOLOGIKOA** 18
   - **5.1. BIBLIOGRAFIAK** 18
   - **5.2. UNITATE DIDAKTIKOAREN DISEINUA** 19
6. **PROPOSAMEN DIDAKTIKOA** 21
7. **ONDORIOAK** 39
8. **BIBLIOGRAFIA** 41
9. **ERANSKINAK** 45

# 1. SARRERA

Hezkuntza etengabe aldatze doa, eta hutsuneak identifikatzea ezinbestekoa da. Ikasle izan naizen heinean eta orain, irakasle izateko masterrean ere, hainbat gabezia identifikatu ditut, eta horiei konponbide emateko asmoarekin garatzen da lan hau.

Lehenik eta behin, arazoa planteatzen da; hau da, zergatik literatura izaten ohi da irakaskuntza gutxien lantzen den arloa, eta horren barruan emakume idazleen lanketa urria. Hori konpontzeko, emakume idazleak egon direla frogatu, eta haien inguruko testuinguru, historia eta obrak azalduko dira. Batez ere, emakume idazleen[1] biografiak eta lan garrantzitsuenen aipamenak izango dira lan teorikoari eskainitako zatirik handiena. Hala ere, nahiz eta teoria hori guztia jaso, oso garrantzitsua da teoriari praktikotasuna bilatzea eta lantzea. Gaiarekiko hurbilpenak bai irakaskuntzatik, filologiatik eta itzulpengintzatik egindako lanetatik egingo dira.

Bestetik, Bigarren Hezkuntzako irakasle izateko masterrari erreparatuz, arlo horren inguruan hutsuneak daude, ez delako apenas literaturarik lantzen eta oraindik gutxiago ere, emakumeek egindako literatura. Beraz, hezkuntzaren inguruko formakuntzan gai hau txertatzea ezinbestekoa da. Emakumeek arlo guztietan ekarpenak egin dituzte, eta sistema eta gizartearen izaera androzentriko patriarkalarengatik behar luketen lekua kendu eta ikusezin bilakatu zaielako beharrezkoa da horrelako lanak egin, eta aldarrikatzea. Beraz, genero eta ikuspuntu feminista batetik egindako lana izango da.

Azkenik, gehitu nahiko nuke lana egiteko hasierako helburua, eta gerora hipotesia praktikaldian berresten ikusi dudala. Bigarren Hezkuntzako ikasleek ez dituzte ia emakumeak lantzen eta are gutxiago garaikideak ez diren emakumeak. Horrekin guztiarekin, lanak hurrengo ordena jarraituko du: helburuak, marko teorikoa, metodologia, proposamen, didaktikoa, ondorioak, bibliografia eta eranskinak.

[1] Idazleak hainbat arloetako testu idazleei egiten die erreferentzia: bertsoak, poemak, narratiba, eta abar.

# 2. GAIAREN HAUTAKETAREN ZERGATIA

Lanarekin hasi baino lehen eta sarreran aipatu dudan moduan lan honen helburua hezkuntza arloaren barruan kokatzen da, baina hortik at doan gai bat dela uste dut. Oso garrantzitsua da gure gizartearen eraikuntzan hezkuntzak duen papera eta ardura, eta horren jabe eta kontsekuente izan behar dugu.

Ezin dugu hezkuntzan gizartearen ahulgune eta okerretan hazi ikasleak. Hortaz, ezinbestekoa da irakasleen eta pertsonen etengabeko formakuntza eta egoeretara moldatzeko gaitasuna izatea.

Aurrekoa kontuan hartuz, emakumearen arloan zentratu naiz. Feminismoaren loraldi eta indarrarekin oso azalean geratu dira gure gizarteko alderi matxista, misogino eta zaharkitu ugari; eta hezkuntza ez da hortik at geratu. Horrenbestez, nahiz eta "agian" gai errepikakorra, edo ez originala dela pentsatu, guztiz beharrekoa dela pentsatzen dut. Gai hau era normalean eta guztiz organikoan klase eta ikastetxeetan ematen denean izango da errepikakorra, baina oraindik asko dago aldatzeko eta eraldatzeko.

Bestetik, XVIII. eta XIX. mendeko emakumeak hautatzea ez da ausazkoa izan. Nahiz eta gauzak ez dira batere orekatuak autore ezberdinen irakaskuntzan, emakume garaikideen informazioa pixkanaka-pixkanaka zabaltzen hasi da, eta horrek poz handia sorrarazten dit. Alta, garaikideak ez diren emakumeak ez dira inondik inora aipatzen. Klasikoak jorratzerako orduan soilik gizonezkoak lantzen dira, eta hori ez da batere bidezkoa, zenen emakume idazle nabarmenak egon baziren, eta horiek aldarrikatu eta goratu nahiko nituzke.

Horrenbestez, masterreko eta praktikaldietako esperientzien bitartez jasotako informazioarekin garatuko da lana, bertan errealitate jakin bat ezagutzeko aukera izan baitut.

# 3. HELBURUAK

Lehen aipaturiko moduan, lana Euskal Hizkuntza eta Literatura ikasgaiaren baitan lantzeko pentsatua dago. Gizartean zein literaturaren barnean emakumeak bizi izan duten ikusezintasunari aurre egiteko eta erreferenteak ikas ditzaten, eta gainera proposamen didaktiko bat planteatuko da. Beraz, ondorengoak dira lanaren helburu nagusiak:

**HELBURU NAGUSIAK:**

- Literaturak Euskal Hizkuntza eta Literatura ikasgaiaren barruan duen egoera.
- Euskal Literaturaren idazleak kritikoki aztertzea.
- Emakume idazleen kokapen historikoa eta testuingurua jakitea, eta haien obrak aztertzea eta baloratzea.
- Klasean lantzeko proposamena egitea.

**BIGARREN MAILAKO HELBURUAK**

- XVII. mendetik XX. mendera bitarteko euskal emakume idazleen errealitatea aztertzea.
- Literatura ikuspegi kritikoz aztertzea.
- Euskal literaturarekin lotura duten webguneak ezagutu eta erabiltzen jakitea.

# 4. MARKO TEORIKOA

## 4.1. CURRICULUMA

Hasi baino lehen, curriculumari begiratu bat eman behar zaio testuingurua eta lanaren zergatia kokatzeko.

Lehenik eta behin, Nafarroako Curriculumak bi eredu linguistiko ezberdinen alderdiak biltzen ditu; hau da, Euskal Hizkuntza eta Literatura A ereduan eta D ereduan.

A ereduaren atalari dagokionez, lau multzo ezberdintzen dira:

- 1. multzoa: Ahozko testuen ulermena
- 2. multzoa: Ahozko testuen ekoizpena.
- 3. multzoa: Testu idatzien ulermena..
- 4. multzoa: Testu idatzien ekoizpena.

(Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 2015a, 2015b)

Multzo horien artean ez da literaturaren gaineko ezer aipatzen. Ondorioz, A ereduko ikasleek ez dute euskal literaturaren gaineko ezagutzarik jasoko curriculumaren arabera.

D ereduan, bestalde, ondorengo multzoak bereizten dira:

- 1. multzoa: Ahozko komunikazioa.
- 2. multzoa: Idatzizko komunikazioa.
- 3. multzoa: Hizkuntzaren ezagutza..
- 4. multzoa: Hezkuntza literarioa

(Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 2015a, 2015b)

Eredu horretan bai azaltzen dela literaturari zuzenduriko tartea, laugarrena hain zuzen ere. Hala ere, hezkuntza literarioaren multzoak hainbat ezaugarri aipagarri ditu.

Bertan, bai DBHko zein batxilergoko curriculumetan hezkuntza literarioaren zatia guztietan txikiena dela ikus dezakegu. Hau da, literatura da Euskal Hizkuntza eta Literaturako arlorik txikiena, eta askotan sakrifikatzen den lehena.

Hizkuntzaren ezagutzak eta idazmen irakurmena izaten dira pisu gehien izaten duten elementuak. Gainera, zer esanik ez mailaz gora joan heinean. Batxilergoko bigarren mailan, unibertsitatean sartzeko probari zuzendurik daude eduki guztiak eta literaturari ematen zaion garrantziaren ideia bat osatzeko, literatura bera ere ez da selektibitate edo USE proban galdetzen[2].

Euskal Hizkuntza eta Literaturaren irakasgaiaren baitan, edukiak lau ataletan banatzen dira, arestian aipatu bezala, eta hezkuntza literarioari zatirik txikiena eskaintzen zaio curriculumean. Hala ere, Euskal Hizkuntza eta Literaturaren irakasgaiaren azalpen edo sarrerako atalean garrantzia handia eskaintzen diote hizkuntza literarioari:

> *Hezkuntza literarioa* multzoak bere egiten du ikasle kultu eta gaituak egiteko helburua, bizitzan zehar jarraipena izanen duen irakurketa-prestakuntzako prozesuan inplikatuko direnak, prozesua ikasle urteetara mugatu gabe. Marko kontzeptual honek txandakatu egiten ditu, batetik, beren gustu pertsonaletatik eta heldutasun kognitibotik hurbileko lan literarioen, eta bestetik, gure literaturaren ekarpenik esanguratsuenetako batzuen gaineko oinarrizko ezagutza ematen duten testu literarioen eta obra osoen irakurketa, ulermena eta interpretazioa. Edukiak etapetan zehar honela banatzen dira: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan euskal literatura garaikidea ikasten da gaur egunera arte, genero literarioen bidez, betiere, testu esanguratsuen hautaketa bat erabiliz. Bigarren zikloan, batetik, xehetasun handiagoz ekiten zaio XX. mendetik gaur arterainoko poesiaren eta ipuin literarioaren ikasketari, testuen bidez; eta, bestetik, XVI. mendetik XVIII. era bitarteko euskal literaturaren azaleko ikuspegi kronologiko bat egiten da, garai horietako atal esanguratsuak baliatuz. Batxilergoko bi ikasturteetan sakonduko dute ikasleek lan literarioen ezagutzan eta testuinguru soziokulturalean duten eginkizunean (Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 2015a:127 or) .

[2] Ikusi unibertsitatera sartzeko ebaluazio probak: http://www.unavarra.es/eu/sites/estudios/acceso-y-admision/evau-para-estudiantes/desarrollo-de-las-pruebas.html

Bide batez, aipatu behar da DBHko, zein batxilergoko curriculum bietan sarrera bera agertzen dela. Nafarroako curriculumean ez dira aipatzen irakatsi edo azaldu beharreko idazleak, beraz, askatasun gehiago dago garai bakoitzean landu beharreko idazleen hautaketaren gainean. Hala ere, ikusi beharko litzateke zenbat emakumezko aipatzen diren. Alonsoren (2008) ikerketan azaltzen denez, batxilergoko bi mailetan ia ez ziren emakumezko idazleak agertzen. Hego euskal herriko ikastetxeen testuliburuak (Elkar, Giltza, Ibaizabal eta OT argitaletxeetakoak) aztertu zituen, eta bakoitzean aipatzen ziren idazleen kopurua aztertu zuen (begiratu eranskinetako taulak (1-4)).

Tauletan agertzen den datuekin oso argi geratzen da zenbaterainoko lekua duten euskal emakume idazleak testuliburuetan. Lehenengo eta bigarren tauletan soilik agertzen dira emakume idazleak (Arantxa Urretabizkaia, Amaia Lasa, Laura Mintegi, Itxaro Borda eta Arantxa Iturbe), eta hirugarren eta laugarren tauletan ez da bat ere agertzen. Beraz, ikus daiteke, euskal literaturaren hezkuntzan ikuspegi androzentriko izugarria dagoela argitaletxe ezberdinek argitaratutako testuliburuetan.

Beraz, testuliburuetan batik bat XIX. mendetik aurrerako idazleak azaltzen dira eta horietatik guztietatik soilik lau emakumezko azaltzen dira. Horrenbestez, ez dago emakume idazlerik? Ez dute lan garrantzizkorik egin? Ez dute behar zuten aitorpenik jaso? Galdera hauek guztiak historiari begira erantzun ditzakegu, beraz, emakumeek euskal literaturaren historian izan duten lekua aztertzea beharrezkoa da.

### 4.2. IKERKETETATIK ERREALITATERA

Aurrekoarekin zuzenki lotuta, aztertutako ikerketak askotan ez dira tokian tokiko errealitatearen isla. Hori aintzat hartuta, praktiketako esperientzia baliatuz, ikerketetako ondorioak errealitatean gertatzen zirela ziurtatu nahi nuen.

Praktiketan ikasle talde birekin denbora nahikoa egoteko aukera izan nuenez, nire kabuz frogatu edo jakin nahi nuen nolakoa zen ikasleen ezagutza eta interesa gai horren inguruan.

Inkesta xume bat egiteko eskatu nien (Cf. eranskinak) eta laugarren DBHko bi taldeetako ikasleek erantzun zuten. Guztira 30 erantzun[3] jaso nituen. Erantzunetan oso

[3] Jasotako erantzunen datu gordinak eranskinetan daude (*Inkestaren emaitzak*).

argi geratu zen Alonsoren erantzunetan bezala, ikasleek ez dituztela XVIII. eta XIX. mendeko emakume idazleak ezagutzen.

1. Taula: Ikasleek ezagutzen dituzten idazleak

| Idazleak | % | kopurua |
|---|---|---|
| Bernart Etxepare | 40.7 | 11 |
| Lazarraga | - | - |
| Leizarraga | - | - |
| Axular | 14.8 | 4 |
| Oihenart | - | - |
| Juan Antonio Mogel | 14.8 | 4 |
| Iparraguirre | 14.8 | 4 |
| Bizenta Mogel | 85.2 | 23[4] |
| Rosa Artola | - | - |
| Maddi Ariztia | 7.4 | 2 |
| Julene Azpeitia | 70.4 | 19[5] |
| Rosa Bustinza | - | - |
| Julia Gabirondo | 3.7 | 1 |
| Baladiñe Albizu | - | - |

Iturria: norberak egindakoa

Datuetan, ikusi daiteke ezagunenak gizonezkoak direla, eta ezezagunenak emakumezkoak. Gainera, idazle garaikideekin alderatuta, ikasleek idazle klasikoak edo antzinakoak klasean ezagutu izan dituzte, eta garaikideak, berriz, klasetik kanpo (ikusi eranskinetako: *Inkestaren emaitzak*, 1. eta 2. grafikoak) . Beraz, esan daiteke antzinako idazleek irakaskuntza batez ere ikasten eta ezagutzen dituztela, baina soilik gizonezkoak.

Horrekin lotuta, *Emakume idazle horiek landu nahiko zenituzke klasean?* galderaren erantzunak (21) baiezkoak izan ziren %66.6ko ehunekoarekin. Beraz, lantzeko gogoa eta eskaera egon badago (ikusi eranskinetako: *Inkestaren emaitzak*, 3. grafikoa). Gainera horrelako idazleak lantzea garrantzitsua dela uste dute.

[4] Datuak ongi ulertzeko argitu behar da inkesta nik emandako klase baten ostean egin zutela, eta horregatik Bizenta Mogel eta Julene Azpeitia idazleak ezagunak zaizkie, baina lehendik ez zituen ikasle bat bera ere ez ezagutzen.

[5] Ibidem.

Horrekin guztiarekin, ikasleek gaia jorratzeko nahia adierazten dute, horrenbestez behar bati erantzuten dion lana izango da, behar erreal bati erantzun nahi dion lana, alegia

### 4.3. EMAKUMEEN LEKUA EUSKAL LITERATURAN

Jakina den bezala, euskal literatura, momentuz, XVI. mendetik aurrerakoa da. Hain zuzen ere, Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* (1545) da gaur egun ezagutzen dugun euskaraz idatzitako lehen liburua. Horrenbestez, Erdi Aroko testigantza gutxi ditugu emakume idazle edo sortzaileen inguruan, baina XVI. mendetik aurrera ere zaila da emakumeen idatziak edo bestelakoekin topo egitea. Azurmendiren (1987) esanetan:

> XVI, XVII, XVIII. mendeak, emakumezkorik gabe. Ez arrastorik ere. Etxepare, Leizarraga, Axular, Larramendi, Kardaberaz…, guzti hauek pasa ziren, erein zuten, baita fruiturik jaso ere; baina fruitu hauen artean ez zen emakumezkorik egon. Klasikotzat ditugun hauen ingurua, biografia, kezka eta obrak azaletik bada ere aztertu ondoren, argi ikus dezakegu une haietan emakumeak hau zuela. Erabat friboloak dira bi lerro hauek, baina begi-bistakoa dirudi funtzio argi eta garbia zeukan erlijio-kutsuko literatur aldi hartan emakumezkoek -garai hartako maila sozialean- aukera eta ahalbide eskasak zituztela. Ilustrazioaren eragina ere mugatua izan zela kontua izanik, XIX. mendearen lehenengo urteetara jo behar dugu emakume idazlea aurkitzeko (Azurmendi, 1987:28).

Dena dela ere, kontuan izan behar dugu sistema patriarkala erlijioaren eta bestelako antigoaleko pentsamoldeekin bat, oso zapaldurik zituela emakumeak eta oso zaila zen emakumeek hezkuntza eta bestelakoak jasotzea eta bestelako eskubide zibilak edukitzea.

Beraz, XIX. mendera arte ez dugu emakume idazleen testu edo idatzirik ezagutzen baina, mende horren hasieran abiatuko dira euskal emakume idazleak haien historia idazten.

## 4.3. EMAKUME NABARMENEN BIOGRAFIA LABURRAK

Atal honetan nire iritziz, eta bestelako lanetan horrelako zerrenda edo idazleen taldea elkarrekin ikustea lortu ez dudanez, emakume idazle hauen bibliografiak azalduko ditut.

**BIZENTA MOGEL** (Auñamendi Eusko Entziklopedia, 2021)

Bizenta Mogel (1782-1854) Azkoitian jaiotako idazlea izan zen. Oso gaztetan umezurtz geratu eta anaiarekin (Juan Jose Mogel) osabarekin Markinara bizitzera joan zen. Osaba, Juan Antonio Mogel zen, beraz, Bizentari euskaraz, frantsesez, gaztelaniaz eta latinez idazten eta irakurtzen erakutsi zion. Kontuan hartu behar da garai horretarako oso bestelakoa zela emakumeek hezkuntza akademiko bat jasotzea (Armiarma, 2021) .

Itzulpengintzan ere aritu zen Bizenta, eta 1804ean argitaratu zen bere obrarik ezagunena: *Ipui onac, ceintzuetan aequituco dituzte euscaldun necazari, ta gazte guciac eracaste ederrac beren vicitza zucentzeco.* Bera izan zen lehen emakumea euskarazko liburu bat argitaratzen. 22 urterekin argitaratu zuen obra, eta bertan, Esoporen berrogeita hamar alegia itzuli zituen euskarara gipuzkoarrez moldatuak eta bizkaieraren hainbat ukiturekin. Horrez gain, beste testu batzuk ditu liburuak, hala nola: sarrera gisa *Don Victo Munibe ta Aranguren-gori,* egindako eskaintza, eta *Iracurle euscaldunari* egindako hitzaurrea. Alegien aurretik *Adigarria* izeneko oharra dago eta liburuaren amaieran liburuak hiztegia dakar, bitan banandua: Bizentaren alegiei dagokion hiztegia, eta osabari dagokiona.

1817ean Eleuterio Basozabal merkatariarekin ezkondu zen eta Abandora joan zen bizitzera. Beste lan batzuk argitaratuko zituen garai horretan Bizentak, aitaginarreba zilargina inprimatzaile lanetan zebilela lagunduta. Hala ere, Bizentaren azkeneko urteak ez ziren atseginak izan. Senarra hil zelarik ondasun guztiak koinatuaren eskuetara joan ziren, eta epaitegietara eraman zituen basozabaldarrak. Gaixorik eta oraindik auzietan zebilelarik zendu zen Bizenta, 1854eko irailaren 29an (Armiarma, 2021).

**ROSARIO ARTOLA ELIZETXEA** (Auñamendi Eusko Entziklopedia, 2021)

Rosario 1869ko maiatzaren 7an jaio zen Donostian eta bertsolaria eta idazlea izan zen. Bost seme-alabetatik gazteena izan zen. Aita eta neba antzezle eta olerkariak ziren, beraz, familiak kulturarekiko harreman estua zuen, eta Rosario ez zen hortik aldendu. Bere familian ohikoa zen bertsopaperak idaztea, eta berak ere ohitura horri eutsi zion, eta aldizkarietan argitaratzen zituzten. 1889an hogei urte zituelarik *Euskal- Erria* aldizkarian argitaratu zuen *Nere gitarchoari* poema. Garaiko aldizkarietan argitaratzen zuen lehenengo emakumea izan zen Rosario. Geroztik etengabe argitaratu zituen bere olerki eta bertsoak.

Sariak ere irabazi izan zituen Rosariok: Oñatin, 1902an, *Arantzazuko Ama Birjiñari* izenekoarekin; Irunen, 1903an, *Zeruetako erregiña* izenekoarekin; Ordizian, 1904an, *Umezurtza* olerkiarekin; Donostian, *Aitona* eta *illoba* izenekoarekin besteak beste. Laurogei urte zituelarik hil zen, 1950eko urtarrilaren 5ean (Hizkuntza Politikorako Sailordea[6]).

**MADDI ARIZTIA** (Hizkuntza Politikorako Sailordea)

Maddi Ariztia (Marie Diharassarri zuen ezkongabeko izena), Saran jaio zen 1887ko uztailaren 28an. Euskararen ezagutza osabari esker datorkio, apaiza eta euskaraz hainbat liburu idatzi zituen hark. Bere osabaren eta aitaren istorioek eragin handia izan zuten Maddirengan, eta gerra garaian Joxemiel Bariandiaran auzo bilakatu zitzaion besteak beste.

1910ean ezkondu zen, eta Frantziako legeen arabera, senarraren deituraz ezagutzen denez emaztea, Maddi Ariztia bilakatu zen. 1934 *Amattoren uzta* izeneko ipuinak hasi zen argitaratzen *Gure Herria* aldizkarian. Geroztik liburu batean ere argitaratu zituen.. Bestalde 1949an, *Bi ohoinen ixtoria* argitaratu zuen *Egan* aldizkarian. Marie Diharassarri, edo Maddi Ariztia, 1972ko irailean hil zen.

---

[6] Paragrafo horretako informazioa Eusko Jaurlaritzak Hizkuntza Politikorako Sailordetzak argitaratutako lanean ez da datarik agertzen, beraz, aipuak egiterako orduan *(Hizkuntza Politikorako Sailordetza)* erabiliko da.

**JULENE AZPEITIA GÓMEZ** (Auñamendi Eusko Entziklopedia, 2021).

Julene Zumaian jaio zen 1888ko urtarrilaren 8an. Irakasle ikasketak egin zituen Donostiako Irakasle Eskolan eta ondoren Bilbon. Oso euskaltzale izan zen Julene eta hori bera erakutsi eta helarazi nahi izan zien bere ikasleei.

Mexikora joan zen 1916an ezkondu eta berehala, eta lau urtez egon zen herrialde amerikarrean. Bertan zegoelarik hasi zen idazten, eta euskaraz gainera. Gainera hango euskaldunek Ignazio Deunaren egunean kaleratzen zuten aldizkarian argitaratu zituen bere lehen lanak. Euskal Herrira itzuli zen 1920. urtean eta irakaskuntzarekin jarraitu zuen, baina 1936an Gerra Zibila zela eta, bere jardunari eten behar izan zion hamaika urtez.

Hainbat lehiaketetara aurkeztu zen Julene; Bizkaiko Diputazioak pedagogiaren inguruan 1925ean antolatutako lehiaketan esaterako, lehenengo saria eskuratu zuen *Irakurri matte* lanarekin; *Euli baten edestia* lanarekin 1933an Kirikiño Saria irabazi zuen; Euskaltzaindiak saritu zuen 1935ean *Osasuna erketza ta yanaritza* lanarengatik; *Amandriaren altzoan* 1955eko lanarekin 1955eko Kirikiño Sarietan bigarren postua lortu zuen besteak beste.

Hala ere, ehunka artikulu kaleratu zituen agerbide ezberdinetan (*Euzkadi, Karmel*, *Egan*, et abar.), eta baita Loiolako Herri Irratian eta Arrate Irratian kolaboratzaile aritu zen ere. 1975ean Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain izendatu zuen bere bizitzan egindako lanengatik, eta 1980an hil zen.

**RUFINA AZKUE LIZASO** (Hezkuntza Politikorako Sailordea)

Rufina Aizarnan jaio zen familia katoliko batean, 1989ko abuztuaren 19an. Kantoiko Mauricio Azkuek eta Fermiña Lizasok edukitako lau seme-alabetako bat izan zen Rufina. Seme zaharrena, Tomax, etxean geratu zen oinordeko, Segundo jesuita, Jesus apaiz eta Rufinak maistra karrera egin zuen.

1928-1930 urteen buruan hasi zen Rufina *Euskal-Esnalea* aldizkarian idazten, emakumea eta bere zoriona eta emakumea eta euskarari buruz gehien bat. Jasotako sariak ere garai horretan jaso zituen, zehazki, 1928an Donostian.

Bestetik, gerra garaian, maistran zelarik, euskaraz ematen zituen azalpenak eta Frankoren irudia soilik inspektorea zetorrenean jartzen zuen. Argi dago ez zuela bat egiten Frankoren, falangearen eta *movimiento*ko doktrinekin, eta horrenbestez, ez zien bere eskola-umeei erakatsi horrelakorik.

Azkoitian bizi eta lan egiten zuen, eta askotan Azkoitikoa dela uste da, baina asteburuero Aizarnara joaten zen. 1972ko otsailaren 11an hil zen.

**ERROSE BUSTINZA *MOÑARIKO* edo *MAÑARIKO*** (Auñamendi Eusko Entziklopedia, 2021)

Errose Mañarian (Bizkaia) jaio zen 1899ko irailaren 3an. Ebaristo Bustinza *Kirikiño*ren iloba zen.

Hasieran, herri mailako gertaera eta kronikak idazten hasi zen *Euzkadi* egunkarian, Euzkel-atalean. Hala ere, *Euzkadi*n ez ezik, Amorebieta-Etxanko *Ekin Jaungoiko Zale Bazkuna'ren asterokua*n eta *Jesusen Biotzaren Deya* aldizkarietan ere herri-kronikak eman zituen. Kazetari-lan horiek gerra zibilaren ostean, errepresioa eta zentsura hasi arte iraun zuten.

Errose literatura genero askotan moldatzen zen, baina aparteko trebetasuna ipuingintzan erakutsi zuen. Irudimen asko zuen eta baserrietako ipuinak jaso eta berpiztu zituen. Lan horiek, euskal kulturarako, etnologiarako eta mitologiarako balio handikoak izan ziren. Beraz, Euskal Herriko ipuinak batu, osatu, berpiztu eta argitara eraman zituen Errosek gerra aurretik. Dena dela, nahiz eta ipuingintzari horrelako ekarpenak egin, bizirik zela ez zuen libururik osatu. Horri nolabaiteko konponbidea eman nahian Jaime de Querejetak 1990. urtean Erroseren 49 ipuinez osaturiko bilduma argitaratu zuen *Ipuiñak* izenburupean.

Ipuinak ez ezik, Errosek olerkiak eta kantu-letrak ere idatzi zituen, hori izan da bere alderdirik ezezagunena. Santi Onandiaren euskal olerkiaren antologiako *Milla euskal-olerki eder* (1976) liburuan bere hiru olerki aurki daitezke.

Bestetik, Bustinza Emakume Abertzale Batzako kide izan zen, eta 1932. urtean Kirikiño saria irabazi zuen Euzkaltzale Bazkunak sorturiko saria *Euzkadi* egunkarian idazten zutenen artean emateko.

Bere jardunaren hasieran, ezizenik gabe sinatzen zuen, baina 1929tik aurrera hasi zen *Mañariko* izengoitiaz sinatzen bere kronika eta ipuinak. Mañarian hil zen 1953ko abuztuaren 20an.

**SORNE UNZUETA, *UTARSUS*** (Auñamendi Eusko Entziklopedia, 2021; Euskal Literatura Hiztegia, 2021)

Sorne Unzueta Abandon jaio zen 1900eko azaroaren 27an. Gazte gaztetatik Sabino Aranaren ideologiarekin bat egin zuen, eta hori dela eta, 16 urterekin euskaldundu zen. Irakasle ikasketak egin zituen, eta bukatu bezain laster, Bizkaiko Foru Aldundiak irekitako auzo-eskoletan aritu zen hogeiko hamarkadan (Errigoitin ,m Plentzian, Lemoan eta Berangon aritu zen). Bere ideologiari jarraituz, nahiz eta garaiko joerari kontra egin, bere ikasleei euskaraz egiten eta irakasten zien.

Politikoki oso aktiboa izan zen eta mitinlari ere ibili zen, eta hori ere bere lanetan ikusi daiteke. Euskaraz idazteko gai izan zenean berehala ekin zion idazteari. Beraz, hortik aurrera poema, kazeta artikuluak eta ipuinak idatzi zituen, bere oinarrian herrigintzari lotutako konpromisoa izanik.

Gerra aurretik idatzi zituen poema guztiak (12 izan ziren) *Euzkerea* aldizkarian argitaratu ziren, eta Jainkoa eta aberria ziren bere gai ohikoenak. Hala ere, gerra garaian erbesteratu zen 1937tik 1953ra arte. Frantzian igaro zuen erbestealdia. Nobela bat idatzi zuen gerra osteko erbestealdiaren inguruan, baina nobelak ez zen argitaratua izatera iritsi. Baina, erbestean zegoela, 1952. urtean, *Artxanda* poema argitaratu zuen *Euzko gogoa* eta *Euzko Deya* aldizkarietan.

1977ra arte Unzuetak ez zuen poemarik argitaratu; hortik aurrera, bere poemek argia ikusi zuten (34 poemek) *Zer* aldizkarian. EHUko literatura hiztegian horrela deskribatzen dute Unzuetaren poesia:

> Irakurlea berehala jabetuko zen Unzuetaren alde formalaz. Haren poemak ez dira bertsoak, ez dira koplak, ez dira ahozko tradizioko moldeak. Berbaldi poetikoa bai, ahapaldika banatuta dago, nolabaiteko simetria gorderik, baina neurri bereziko eta aldaera anitzeko ahapaldiak dira; horrek jada mezu bat helarazten dio irakurleari. Jakina, Utarsusen poemok agertu zirenerako alderdikidea zen Lauaxetak bere bidearen zati handi bat egina zeukan. Eta Sorne Unzuetak bazeukan eredu bat harengan.

Abertzaletasunak, gainera, topiko batzuk eskaini zizkion, Utarsusek zintzotasunez jorratuko zituenak, nahiz eta gerora konturatu garen zenbaitzu ez direla gizakoiak: kanpotarrekiko ukapena, euskara "euzkoen" artean soilik hedatzekoa, eta abar. Zenbait bikote antinomikoak ere erruz jorratzen dira (baserria/ hiria; mendi-goiak/ behea...). Hala ere hori ez da oztopoa izango nolabaiteko estetika modernista jorratzeko: iradokizun zehaztugabetan, eskaintzen dituen paisaia lainotsu eta sentikorretan, zentzumenen bidez atzematen ahal direnetan (Euskal Literaturaren Hiztegia, 2021).

Poema alegorikoak ere egin zituen Utarsusek. Irudi bat (narratiboa, naturalista...) aurkezten da lehenengo eta, gero, berorren azalpena dator. Zenbait irudiren bidez irakurle euskaldunaren bihotzera ailegatu nahi du, ama eta ume txikiaren arteko erlazioa, ehizatutako txori errukarria, mendi magal batetik ikusten den ibaia, udaberria... Irudi, egoera eta eduki narratibo guztiak irakurlea nola edo hala hunkitzeko ahaleginak dira, poetaren sentimendu garbi eta bigunak hedatzen diren artean. Irakurlearengandik, besteak beste, hauxe espero da: lozorrotik esna dadila, (euskal) kontzientziaren jabe izan dadila eta aberriaren "itxarkundian" edota pizkundean parte har dezala. Utarsus kontzientea da, emakume idazlea izanik, mezu hori emakumeen artean zabaltzeko ardura bereziki berari dagokiola, eta mezu zuzenekin ("Itxartu, Eusko alabea") edota zeharkakoekin ("Laztandu nau, semea...") ahaleginduko da horretan. Asmoaren zintzotasunaren froga poema bera dugu, non asmo erlijiosorik gorenak, asmo zuzenenak, finenak eta sentikorrenak modu gizakoi batean erakusten diren, betiere itxurakeriarik gabe, nabarmenkeriarik gabe: izadiak eskaintzen dizkion irudi arruntez eta zenbait gertaerez eta balio narratiboa duen edozein poematxoz baliatzen da idazlea. Izan ere, nahikoa dira gauza horiek guztiak Unzuetak nahi duen moduan adierazi ezina iradokitzeko (Euskal Literaturaren Hiztegia, 2021).

## Ipuinei dagokionez:

Ipuinok eskoletan erabiltzeko modukoak izan zitezkeela igartzen da, eta ziurrenera erabili egingo zituen Utarsusek. Ipuinotan balio pedagogikoak eta etikoak nabarmentzen dira, gizakia inoren menpekotasunetik at bizitzeko eskubidea aldarrikatuz, abertzaletasunaren koherentzia zertan datzan erakutsiz eta bizimodu erosoaren gainetik beste balio batzuk ere badaudela agertuz. Horrekin batera, estilo herrikoia (neologismo batzuk erabili arren), adierazkorra, dramatizatua eta bizia antzematen dira, betiere alegia

moduko kontakizunak osatuz, fantasiazko izakiekin batzuetan, existitzen ahal ziren gizakiekin. Ipuinotako pertsonaien antzezpena zerbait iradoki edota arrazoitzeko egiten da beti, Utarsusek kazetaritza artikuluetan (gutxi batzuk soilik euskaraz idatziak) erakusten duen argumentazio eta dialektika-gosea modu eraldatuan agertuz. Gerra aurreko ipuin eta olerkietan esplizituagoa da, gerraostekoetan baino. Hitz-lauzko zereginean bazuen eredurik: urrutiegi joan gabe, bere euskara irakasle izandako Ebaristo Bustinza *Kirikiño* idazlearen ezaugarriak antzeman ditugu Utarsusen ipuin eta iritzi-artikuluetan (herrikoitasunaren aurkikuntza, hizkera bizia, dialektika, lokuzioetarako joera...) Baina arlo hau ez da bere literaturaren alderik jasoena, kontuan hartzekoa den arren (Euskal Literaturaren Hiztegia, 2021).

Utarsus Urdulizen zendu zen 2005eko urtarrilaren 13an.

**JULIA GABIRONDO, *MAITE*** (Hizkuntza Politikorako Sailordea; Wikiwand, 2021)

Julia Klaudia Gabilondo Mungian jaio zen 1902ko urtarrilaren 29an. Mungian bizi zelarik ahizpa Inaziarekin batera denda bat zuen. Baina, denda bezainbeste maite zuen Juliak euskaraz irakurtzea eta idaztea. Gainera, Lauaxetaren lagun egin zen, eta horrek euskalduntasuna eta euskaraz idazteko motibazioa eta sua piztu zizkion.

Gerra garaian, Agustin Zubikarai apaiz eta euskaltzalearen bisita sarriak izaten zituen izan ere, Julia *Eguna* egunkarian idazten zuen *Maite* izenordearekin. Abertzaletasuna, gudarien alde, emakumearen papera gizartean, eta aberrigintza izaten ziren bere ohiko gaiak. Bere idazteko jarduna saritua izan zen ere, 1930ean *Euskal-Esnaleak* antolatutako saria irabazi zuen, *Nor da kementsuagoa, gizonezkoa ala emakumezkoa* gaiarekin.

Mungian jaio arren, Beasainen, Lazkaon eta Donostian bizi izan zen. Azken horretan zendu zen 1994ko urtarrilaren 1ean.

**PILAR LEKUONA ETXABEGUREN** (Hizkuntza Politikorako Sailordea)

Oiartzunen jaio zen 1906ko apirilaren 4ean, bederatzi seme-alaben artean. Bere familiako kide ziren Martin Lekuona, Juan Mari, Andoni eta Julen idazle, poeta eta kantariak. Beraz, familian ohitura eta kulturako giroan bizi izan zen Pilar.

Pilarrek astero-astero argitaratzen zituen herriko kronikak Argia Astekarian. Baina, hori baino lehen *Euskalerriaren alde* aldizkarian ere idazten zuen, eta sariak jaso zituen ere Josefa Martiarenarekin batera.

Gerra garaian alargundu zen Pilar, baina 1940an Anastasiorekin ezkondu zen berriro, Lezora. Hala ere, bizitzako eta gerra osteko nahigabeek ez dute Pilar idaztetik aldendu, eta oraindik ustean behin Oiartzungo aldizkarian idazten du urteko bertako kondaira eta kontu zaharren inguruan.

**BALENDIÑE ALBIZU** (Auñamendi Eusko Entziklopedia, 2021)

Zumaian jaio zen 1914ko irailaren 18an. EAJrekin bat egiten zuen merkataritza-itsas armadako kapitain baten alaba zen. 14 urte zituelarik Julio Beobide eskultorearekin hasi zen bizitzen, eta gaztetatik herriko batzokiarekin harremana izan zuen, eta bertan piztu zitzaion antzerkigintzaren sua.

Gerra garaian, Bizkaira joan zen ihesi eta Bilbon ezagutu zuen Juan Manuel, (Mundakako Euzko Alderdi Jeltzalearen batzarreko presidentea) bere lehenengo senarra. 1940an, Ipar Euskal Herrian egonaldi labur bat egin ondoren, Venezuelara joan zen bizitzera, eta bertan bizi izan zen 1995ean Zumaiara itzuli zen arte. Herrialde amerikar hartan ostalaritzako negozioan aritu zen. 50eko hamarkadaren amaieran, senarrarengandik banandu eta Rafael Calvorekin ezkondu zen, 1936-1939ko gerratik ihes egin zuen donostiarra.

Poema asko argitaratu zituen Venezuelan, batez ere EAJri lotutako aldizkarietan (*Euzkadi*, *Gaztedi*, *Sabindarra*, *Irrintzi*). Aktibista jeltzale nabarmena izan zen Venezuelan.

Hala ere, oso ezezaguna zen Euskal Herrian. 1972ra arte ez zen bere lanik argitaratu bertan. 1972an *Zeruko Argia* aldizkarian argitaratu zen *Nire erritar maiteari* poema. Urte horretan bertan *Itxaropena* argitaletxeak bere poema bilduma argitaratuko du *Nire olerki txorta* izenburupean. 1984ean Santi Onandiaren eskutik beste liburu bat argitaratu zuen bere obra ia guztia bilduz *Olerkiak* izenburuarekin.

Elixabete Garmendiaren (1998) esanetan:

> Maitasunaren klase eta esparru guztiak landu ditu. Ez du inolako erreparorik bere maitasuna behin eta berriz adierazteko. Agian, bere herritik urrun, bihotza erdibituri bizitzeak premia hori areagotu zion, eta Karibeko gozotasunak, euskal herriaren zurruntasunarekin zerikusirik ez duenak, bere sentimenduak ozenki adierazten lagundu dio (Garmendia, 1998 *apud.* Auñamendi Entziklopedia, 2021).

# 5. MARKO METODOLOGIKOA

Marko metodologiakoari dagokionez, aipatu bezala, emakume idazleak lehen lerrora ekartzea da helburua, eta horretarako proposamen didaktiko bat garatzea oso aproposa litzateke.

Hau da, teknika kualitatibo zein kuantitatiboak erabiliko dira proiektuan, nahiz eta arlo teorikoari garrantzia asko eman. Teknika horiei esker proposamen didaktikoa moldatu eta ikasleei egokitzeko aukera ahalbidetuko duelako.

Unitate didaktikorako, *Berritzegune*ak (2017) unitate didaktikoak sortzeko gida, Armiarma (2021) webgunea, Auñamendi Eusko Entziklopediaren (2021) webgunea, Eusko Jaurlaritzak argitaratutako Hizkuntza Politikorako Sailordetzaren bitartez sortutako txostena, Astizen (2019) Master Bukaerako Lana, Azurmendiren (1987) lana, Etxeberria (2020) eta Salaberriaren (2020) Gradu Bukaerako Lanak erabiliko dira.

## 5.1. BIBLIOGRAFIAK

Bibliografiak funtsezkoak dira lan honetan. Emakume idazleek jasan duten ikusezintasuna konpontzeko bide bakarrenetarikoa haien historia eta lanak ezagutzean datza. Beraz, kronologikoki azpimarragarriak izan diren emakumeen biografia laburrak sortu beharko dituzte ikasleek (XVIII-XIX. mendeetakoak). Gainera, testu liburuko literatura gaiekin bateratuko da; horrenbestez, literatura eman, eta emakume idazleak ezagutu eta landuko dituzte.

Beraz, euskal emakume idazle klasikoak testu liburuetan agertzen ez direnez, ikasleek bilatu beharko dute haien inguruko informazioa (biografiak eta haien lan garrantzitsuak). Informazioa lortzeko IKTen bitartez, euskal literaturarekin lotura duten orrialdeak erabiltzen eta ezagutuko dituzte; hala nola: Armiarma (2021) webgunea, Auñamendi Eusko Entziklopediaren (2021) webgunea, Eusko Jaurlaritzak argitaratutako Hizkuntza Politikorako Sailordetzaren bitartez sortutako txostena, Basque Poetry (2021), Wikiwand (2021), Ahozko Literatura (2021), Ahotsak (2021), eta Euskal Literaturaren Hiztegia (2021) webguneak erabiliko dira.

## 5.2. UNITATE DIDAKTIKOAREN DISEINUA

Arestian aipatu den moduan, atal praktikoa garatzeko unitate didaktiko baten proposamena diseinatuko da. Unitatea sortzeko *Heziberri 2020* gidako informazioan eta ereduetan oinarrituko da (cf. halaber, Landa eta Lopez-Mugartza, 2021).

Beraz, unitatea lau ataletan banatuko dut: hasierako fasea, garapen fasea, aplikazio eta komunikazio fasea, eta orokortzea eta transferentzia fasea.

| | | |
|---|---|---|
| **HASIERAKO FASEA** | **Gaia aurkeztea**<br>Egoera erreal edo simulatu esanguratsuak diren arazo-egoerak planteatzen dira; horiei irtenbidea emateko unitatean ikasiko eta garatuko diren konpetentziak edo konpetentzia horien osagai batzuk eta edukiak beharko baitira.<br>**Unitate didaktikoa aurkeztea**<br>Ikasleekin zer ikasiko duten eta zertarako ikasiko duten adosten da. Beharrezkoa da interakzioak sustatzea, hasi berri den lan-unitatearen helburuak hitzez adierazteko eta esplizitatzeko. | **HASIERAKO EBALUAZIOA**<br>Ikasleek ebaluazio-irizpideak barneratzea.<br>Aurrez duten ezagutzaz jabetzea. |
| **GARAPEN-FASEA** | **Ikaskuntza berriak txertatzea**<br>Ikasleek ezagutza, esperientzia, informazio eta teknika berriak jasotzea errazten duten jarduerak.<br>**Ikaskuntzak aplikatzea eta finkatzea**<br>Hasierako arazo-egoerari lotutako datu garrantzitsuak hautatzeko nahiz lehenesteko eta hasierako hipotesiak balioztatzeko argumentuak egiteko aukera ematen duten jarduerak.<br>Gauzatze-prozesuari buruzko gogoeta eta hitzezko adierazpena sustatzen duten jarduerak.<br>**Ikaskuntzak egituratzea**<br>Jasotako jakintza berria era koherentean berrantolatzeko jarduerak. | **EBALUAZIO HEZIGARRIAETA PROZESUALA**<br>Ikasleak egiten ari diren ikaskuntzaz jabetzea |
| **APLIKAZIO-ETA** | **Ikasitakoa aplikatzea eta komunikatzea**<br>Integratzeko jarduerak, erlazioen ezarpena eta planteatutako egoeraren interpretazio globala.<br>Egindako lanaren emaitzak eta ondorioak | **AMAIERAKO EBALUAZIOA**<br>Prozesuarena<br>Ikaskuntzarena<br>Ebaluazio-irizpideen |

| | | |
|---|---|---|
| | komunikatzeko jarduerak.<br>Ikasitakoan sakontzeko jarduerak eta ikasteko erabilitako estrategiez eta eskuratutako trebetasunez konturarazteko jarduerak. | betetze-maila egiaztatzea.<br>Ikasleen parte-hartzea (autoebaluazioa eta koebaluazioa) |

| OROKORTZEA ETA TRANSFERENTZIA |
|---|
| Fase honetan, jakintza zehatza (egoera zehatz batean jasotakoa) orokortu daitekeen jakintza bihur daiteke, antzeko egoeretan erabil daitekeena. |

Iturria: Heziberri, 2020: 7-8.

Unitatearekin hasi aurretik, ikasleen jakintzak neurtzea oso garrantzitsua da. Horren arabera, hainbat ezaugarri eta aldaketa egin daitezkeelako eta unitate didaktikoa haien beharrei gehiago doitu. Horretarako, unitatearen hasierako fasean, unitatearen azalpenean, gaiarekiko hurbilpena egingo da, eta ikasleen jakintzak neurtuko dira, gerora unitateak aldaketak behar dituen jakiteko; hau da hasiera ebaluazioa eta diagnostikoa egingo da.

Garapen fasean, ikaskuntza berriak landuko dira, jarduera ezberdinen bitartez (esploratzeko jarduerak, aplikazio jarduerak…). Fase hau luzeena izaten da, baina bertan jasoko dute informazio eta beharrezko baliabideak.

Aplikazio eta komunikazio fasean, unitatean planteatutakoari erantzuna edo konponbidea eman beharko diote. Beraz, haien emaitzak aurkeztuko dituzte, aurreko faseetan lortutako jakintzak aplikatuz. Gainera, atazaren ebaluazioa egingo da.

Azkenik, orokortze eta transferentzia fasean, ikasleek eskuraturiko ikaskuntzak integratuko dira. Unitatearen amaiera denez, ikaskuntza prozesua amaitzen da.

# 6. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

| Ikasgaia | Maila | Izenburua |
|---|---|---|
| Euskal Hizkuntza eta Literatura | DBH 4 | *Emakume idazleak lehen lerrora* |

## 5.1 Sarrera

Altsasu BHI Altsasuko San Pedroko Bidea kalean kokatua dago, Altsasuko iparreko mendialdean. Ikastetxe publikoa da, eta BHI eta Batxilergoa eskaintzen dituen Sakanako ikastetxe bakarra da, bai D ereduan, bai A ereduan. Bestalde, ikastetxeak CEP (curriculum egokitutako programak), PMAR (DBHko 3. eta 4. mailako ikasleen aniztasunari erantzuteko hezkuntza neurria) eta CBU (curriculum bereziko unitatea) egokitzapen eta programak eskaintzen ditu.

Ikastetxea Sakanako bailaran kokatua dago Nafarroako erdialdeko mendebaldean. Hizkuntzari dagokionez, ikastetxea Nafarroako zona euskaldunean kokatzen da (Euskararen Foru legea, 1986). Batxilergoa eskaintzen duen zentro bakarra izanik bailarako herri ezberdinetako ikasleak elkartzen dira bertan; hau da, Ziordia, Olatzagutia, Altsasu, Urdiain, Iturmendi, Bakaiku, Etxarri Aranatz, Arbizu, Ergoiena, Lakuntza, Arruazu, Uharte Arakil, eta Irañetako ikasleak. Euskara hiztunei dagokionez herrien araberako alde nabariak ikus ditzakegu. Kontuan hartu behar dugu Sakanan 3 haranetako euskara bata besteetatik aldatzen direla; hala ere, ez dago komunikazioa oztopatzen duen arrazoirik.

Ikasle kopuruari dagokionez, Altsasuko BHI institutuan 500 bat ikasle batzen dira osotara. Batxilergoko eskaintzari dagokionez zientziak, giza zientziak eta teknologiako espezialitateak daude.

Azpiegiturari dagokionez, institutua eraikin nagusi batean antolatzen da. Hiru solairuetan antolatzen da ikastetxea, alde berritu batekin.

Honenbestez, proposatzen den unitate didaktikoa laugarren DBHko ikasleei zuzendua dago. Laugarren mailan guztira 53 ikasle daude hiru taldeetan banatuta: gizarte zientzietako taldea (15), zientzietako taldea (20) eta teknologiako taldea (18). Ikasle kopurua 20ren buruan egon ohi da, baina talde hau, gizarte zientzietakoa

alegia, txikiagoa da eta 15 dira.

Talde hau giza zientzietako modalitatean kokatzen da eta astean *Euskara eta Literaturako* lau saio izanen dituzte, bakoitzak 55 minutuko iraupenarekin.

Ikasleen soslaiari erreparatuz, talde nahiko homogeneoa dela esan genezake. Hala ere, klasean adimen handiko ikasle bat eta TDAH zantzuak dituen ikasle bat daude. Gehienak DBH-tik elkar ezagutzen dute.

- Altsasu (6)
- Urdiain (3)
- Iturmendi (2)
- Etxarri-Aranatz (2)
- Olatzagutia (1)
- Lakuntza (1)

- 9 neska
- 6 mutil

## 6.2. D ereduko Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasgaiaren DBH 4.mailako Curriculuma

EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA

*DBHko 4. maila*

| EDUKIAK | EBALUAZIO IRIZPIDEAK | EBALUATU BEHARREKO IKASKUNTZAKO ESTANDARRAK |
|---|---|---|
| **1. MULTZOA.–AHOZKO KOMUNIKAZIOA: ENTZUTEA ETA ULERTZEA, HITZ EGITEA ETA ELKARRIZKETAN JARDUTEA** | | |
| **Entzutea eta ulertzea:**<br>Ahozko testuak ulertzea, interpretatzea eta baloratzea, erabilera esparruari dagokionez: esparru pertsonala, akademikoa, soziala eta lan esparrua.<br>–Ulermen orokorra: hizlariaren komunikazio asmoa atzematea, testuko gaia zehaztea, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiztea eta informazio zehatza eskuratzea.<br>–Testuaren zentzua interpretatzea: hizlariaren jarrera zehaztea.<br>Ahozko testuak ulertzea, interpretatzea eta baloratzea, bilatzen duten xedeari dagokionez: narrazio, elkarrizketa, deskribapen, jarraibide, azalpen eta argudiozko testuak.<br>Eztabaida, solasaldi, elkarrizketa eta bat-bateko mintzaldien zentzu globala eta solaskide bakoitzaren komunikazio asmoa behatzea eta ulertzea eta komunikazioaren oinarrizko arauak aplikatzea.<br>**Hitz egitea eta elkarrizketan jardutea:**<br>Ahozko testuen ekoizpenerako behar diren estrategiak ezagutzea eta progresiboki modu autonomoan erabiltzea:<br>–Azalpenaren argitasuna, egokitasuna, edukiaren koherentzia eta kohesioa eta alderdi prosodikoak (intonazioa, etenak, tonua, tinbrea, bolumena…), begirada, jarrera, gorputz hizkuntza.<br>–Atazaren ebaluazio progresiboa.<br>Jendaurrean hitz egiteko behar diren estrategiak ezagutzea, erabiltzea eta aplikatzea: diskurtsoa planifikatzea, ahozko praktika formalak eta ez formalak eta atazaren ebaluazio progresiboa, ondokoetan:<br>–Eremu pertsonaleko, akademikoko, sozialeko eta lan eremuko ahozko testuak.<br>–Ahozko testuak, bilatzen duten xedeari dagokionez: narrazio, deskribapen, jarraibide, azalpen eta argudio testuak.<br>Bat-bateko elkarrizketak eta hedabideetako ohiko beste ahozko praktika diskurtsibo batzuk arautzen dituzten ahozko komunikazioko kortesiazko arauak ezagutzea, erkatzea, erabiltzea eta baloratzea. Eztabaida. | 1. Esparru pertsonal, akademiko, sozial zein lanekoan berezkoak diren ahozko testuak ulertzea, interpretatzea eta baloratzea, zentzu orokorra atzemanez, informazio esanguratsua identifikatuz, informazio zehatzak erauziz, inferentziak eginez, hizlariaren jarrera zehaztuz eta formaren eta edukiaren zenbait alderdi baloratuz.<br>2. Narrazio, deskribapen, jarraibide, azalpen eta argudiozko ahozko testuak ulertzea, interpretatzea eta baloratzea, zentzu orokorra atzemanez, informazio esanguratsua identifikatuz, informazio zehatzak erauziz, inferentziak eginez, hizlariaren jarrera zehaztuz eta formaren eta edukiaren zenbait alderdi baloratuz.<br>3. Eztabaiden, solasaldien eta bat-bateko elkarrizketen zentzu orokorra eta asmo komunikatiboa ulertzea, asmo komunikatibo hori eta bat ez datozen jarrerak identifikatuz, interpretatuz eta baloratuz eta komunikazio sozialaren oinarrizko arauak onartuz.<br>4. Atzematea, interpretatzea eta progresiboki ebaluatzea norberaren eta inoren ahozko ekoizpenen edukiaren azalpen-argitasuna, egokitasuna, koherentzia eta kohesioa eta, orobat, alderdi prosodikoak eta ez-ahozko elementuak (keinuak, mugimenduak, begirada, etab.).<br>5. Ahozko hizkuntza baloratzea ikasteko tresna gisa, ezagutzak, ideiak eta sentimenduak transmititzeko bitarteko gisa eta jokabidea arautzeko tresna gisa.<br>6. Jendaurrean modu egituratuan hitz egiten ikastea, egoera formaletan edo ez formaletan, banaka edo taldeka, ahozko hizkuntzaren erabileraren planifikazio, testualizazio eta ebaluazio estrategiak aplikatuz esparru pertsonal, eskolako/akademiko eta sozialarekin loturiko diskurtsoetarako eta xedea azaltzea eta argudiatzea duten diskurtsoetarako.<br>7. Jarduera akademikoan ohikoak diren ahozko parte–hartze bat–bateko zein planifikatuetako eta hedabideetako ahozko praktika diskurtsiboetako kortesiazko arauak ezagutzea, erkatzea, erabiltzea eta baloratzea, eztabaida eta tertulietan aztertuz argudioen baliozkotasuna eta modu kritikoan interpretatuz horien forma zein edukia. | ULERTZEN DU:<br>1.1. Informazioa aurkitu eta eskuratzen du:<br>–Ahozko testuetako informazio esanguratsuak erauzten ditu eta elementu esanguratsuak aurkitzen ditu.<br>–Informazio esanguratsua atxikitzen du, ideia nagusiak hautatuz, oso esanguratsuak ez diren ideiak baztertuz eta jasotako datuak berrantolatuz.<br>1.2. Testua orokorrean ulertzen du:<br>–Eremu pertsonal, akademiko/eskolako, sozial eta lanekoan berezkoak diren narrazio, deskribapen, jarraibide, azalpen eta argudio asmoko testuen zentzu orokorra ulertzen du, informazio esanguratsua identifikatuz, gaia zehaztuz eta hizlariaren asmo komunikatiboa ezagutuz.<br>–Testuak ahoz laburtzen ditu, ideia nagusiak jasoz eta argitasunez integratuz logikoki eta semantikoki erlazionatzen diren perpausetan.<br>1.3. Integratzen eta interpretatzen du:<br>–Ulertzen du hedabideetatik datozen publizitate, informazio eta iritzi testuen zentzu orokorra, bereiziz zer den informazioa eta zer pertsuasioa publizitatean eta zer den informazioa eta zer iritzia berrietan, erreportajeetan, eta abarretan.<br>–Igorlearen eta testuko edukiaren ideiak aurreratu eta datuak inferitzen ditu ez-ahozko iturriak aztertuz.<br>–Nabarmentze estrategiak identifikatzen ditu: errepikapenak, galdera erretorikoak, nabarmentze adierazkorra... Baita hedapeneko estrategiak ere: birformulazioak, konparazioak, etab.<br>1.4. Testuaren edukiaren gainean hausnartzen du:<br>–Emandako informazioa bere esperientziarekin eta aldez aurreko ezagutzekin erlazionatzen du eta hizlariaren mezua indartzen duten ordezko datuak ematen ditu.<br>–Hitzaldi bat, jendaurreko hitzak, hedabideetatik datorren berri bat, etab. zein ataletan egituratzen diren eta diskurtsoaren eta testuinguruaren arteko erlazioa bereizten ditu.<br>1.5. Testuaren formaren gainean hausnartzen du:<br>–Egoera komunikatibo bakoitzean erregistro egokia, formala zein ez formala, erabiltzearen garrantzia baloratzen du eta bere ahozko diskurtsoetan aplikatzen du, komunikazio eraginkorra eskuratzeko duen balio soziala aitortuz.<br>2.1. Narrazio, deskribapen, jarraibide, azalpen eta argudio asmoko ahozko testuen zentzu orokorra ulertzen du, informazio esanguratsua identifikatuz, gaia zehaztuz eta hizlariaren asmo komunikatiboa ezagutuz.<br>2.2. Narrazio, deskribapen, jarraibide, azalpen eta argudio asmoko ahozko testuen egitura atzematen du, ahozko testu–kohesiorako estrategiak identifikatuz.<br>2.3. Igorlearen eta testuko edukiaren ideiak aurreratu eta datuak inferitzen ditu, ez-ahozko iturriak aztertuz.<br>2.4. Informazio esanguratsua atzematen du, ideia nagusiak hautatuz, oso esanguratsuak ez diren ideiak baztertuz eta jasotako datuak berrantolatuz.<br>2.5. Ahozko testuetako (narrazioak, deskribapenak, azalpenak eta argudioak) informazio zehatzak erauzten ditu.<br>2.6. Narrazio, elkarrizketa, deskribapen, azalpen, jarraibide eta argudio testuen edukiko alderdi zehatzak interpretatzen eta baloratzen ditu, iritzi arrazoituak emanez eta kontzeptu pertsonalekin erlazionatuz, ikuspegi partikular bat justifikatzeko.<br>2.7. Hitz edo enuntziatu ezezagunen esanahia aurkitzeko tresna egokiak progresiboki erabiltzen ditu (hiztegietan bilatzen du, gogoratzen du zein testuingurutan azaltzen den…). |

136. orrialdea - 127. zenbakia · NAFARROAKO Aldizkari Ofiziala · 2015eko uztailaren 2a, osteguna

| EDUKIAK | EBALUAZIO IRIZPIDEAK | EBALUATU BEHARREKO IKASKUNTZAKO ESTANDARRAK |
|---|---|---|
| **Hizkuntzaren aldaerak:**<br>Hizkuntzaren erabileran gizarteko esparru desberdinetan eragina duten faktoreak eta erregistro desberdinak ezagutzea eta, komunikazio egoeraren baldintzen arabera, erregistro egokia erabiltzearen garrantzia aintzat hartzea.<br>**Hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta:**<br>–Gelako testuinguruan eta gelatik kanpo sorturiko ikasketa aukerez baliatzeko interesa.<br>–Norberaren hizkuntzaren erabilera hobetzeko gaitasunean konfiantza izatea. | 12. Norberaren hizkuntzaren erabilera hobetzeko gaitasunean konfiantza izatea. | 9.2. Identifikatzen, azaltzen eta erabiltzen ditu testu bati kohesioa ematen dioten mota desberdinetako kausa, ondorio, baldintza eta hipotesi lokailuak eta barne erreferentziazko mekanismo gramatikal eta lexikoak.<br>9.3. Emandako testu batean deixi pertsonal, tenporal eta espazialeko formak (erakusleak, denbora eta toki adberbioak eta izenordain pertsonalak) identifikatzen eta azaltzen ditu.<br>10.1. Ahozko edo idatzizko testuetako erregistro linguistikoak komunikazio xedearen eta erabilera sozialaren arabera atzematen ditu.<br>10.2. Egoera komunikatibo bakoitzerako erregistro egokia erabiltzearen garrantzia baloratzen du eta ahozko eta idatzizko bere diskurtsoetan aplikatzen du.<br>11. Gelako testuinguruan eta gelatik kanpo sorturiko ikasketa aukerez baliatzeko interesa du.<br>12. Bere hizkuntzaren erabilera hobetzeko gaitasunean konfiantza du. |
| **4. MULTZOA.–HEZKUNTZA LITERARIOA** | | |
| **Irakurketa plana**<br>Euskal literaturako, literatura unibertsaleko eta gazte literaturako lanen irakurketa librea, plazer iturri gisa, norberaren burua aberasteko eta mundua ezagutzeko, norberaren gustu eta interes literarioen garapena eta irakurketako autonomia garatzeko.<br>Asmo literarioa eta didaktikoa duten euskarazko testuak irakurtzea eta ulertzea , egilearen asmoa, gaia, beren generoko ezaugarri formalak eta edukiaren eta testuinguru soziokulturalaren arteko erlazioa atzemanez.<br>Euskarazko olerki garaikideen irakurketa iruzkindua egitea eta errezitatzea, arreta berezia eskainiz sinbolismoak eta abangoardiek hizkuntza poetikoari egindako ekarpenei, olerkietan elementu sinbolikoen eta baliabide erretorikoen eta metrikoen funtzioa baloratuz eta hizkuntza poetikoa baloratuz sentimenduak adieraztearen zerbitzura dagoen tresna gisa.<br>Zenbait poeta garaikide eta haien euskarazko lanak ezagutzea, egilearen asmoa, gaia, generoaren ezaugarri formalak eta edukiaren eta testuinguru soziokulturalaren arteko erlazioa atzemanez.<br>Hainbat egitura eta ahots narratibo dituzten hainbat motatako euskarazko ipuin literario garaikideen irakurketa iruzkindua.<br>Literatura idatziko egile eta lan nagusienak ezagutzea (XVI-XIX. mendeak): Etxepare, Lazarraga, Leizarraga, Axular, Oihenart, Larramendi eta apologistak, Juan Antonio Mogel, Iparragirre, Txomin Agirre, etab.<br>**Sorkuntza**<br>Asmo literarioko testuak idaztea, XX. mendeko testuen irakurketatik abiatuta, hautaturiko generoan ohikoak izaten diren konbentzioak erabiliz eta xede ludiko eta sortzailearekin.<br>Ikasitako lan literarioei buruzko lanak egitea.<br>Lanak egiteko informazio iturri askotarikoak kontsultatzea eta horiek behar bezala aipatzea. | 1. Norberaren gustu eta afizioetatik hurbileko aldi guztietako euskal literaturako, literatura unibertsaleko eta gazte literaturako lanak autonomiaz irakurtzea eta ulertzea, irakurzaletasuna erakutsiz.<br>2. XX. eta XXI. mendeetako euskarazko poemak irakurtzea, ulertzea eta iruzkintzea, egilearen asmoa, gaia eta generoaren ezaugarriak atzemanez, edukia testuinguru soziokultural eta literarioarekin erlazionatuz eta poema horien gaineko iritzi pertsonal arrazoituak emanez.<br>3. XX. eta XXI. mendeetako euskal literaturako hainbat motatako ipuin literario esanguratsuak, hainbat egitura eta ahots narratibo dituztenak, irakurtzea, ulertzea eta iruzkintzea, egilearen xedea atzemanez eta edukia testuinguru soziokultural eta literarioekin erlazionatuz.<br>4. Testu poetikoak eta ipuin literarioak idaztea, XX. eta XXI. mendeetako testuen irakurketatik abiatuz, generoko konbentzio formalei jarraikiz eta asmo ludikoarekin eta sortzailearekin.<br>5. Literatura idatziko egile eta lan nagusienak ezagutzea (XVI-XIX. mendeak): Etxepare, Lazarraga, Leizarraga, Axular, Oihenart, Larramendi eta apologistak, Juan Antonio Mogel, Iparragirre, Txomin Agirre, etab.<br>6. Aztertutako generoetako irakurketei buruzko lanak egitea.<br>7. Behar bezala kontsultatu eta aipatzea askotariko informazio iturriak, literaturako curriculumeko gai bati buruzko lan akademiko bat egiteko orduan, paperezko euskarrian zein euskarri digitalean, ikuspegi kritiko eta pertsonala hartuz eta informazioaren teknologiak baliatuz. | 1.1. Interes maila eta autonomia gero eta handiagoz irakurtzen eta ulertzen ditu bere gustu eta afizioetatik hurbil dauden literatur lanak.<br>1.2. Baloratzen du irakurketa libreko lanetakoren bat, edukia laburtuz, eta arreta gehien deitu dioten alderdiak eta esperientzia pertsonal gisa irakurketak eman diona azalduz.<br>1.3. Lanen arteko erlazioak eta loturak ezartzen ditu, gehien interesatzen zaion edo zaizkion lanean zentratuz.<br>2.1. XX. eta XXI. mendeetako poemak irakurtzen eta ulertzen ditu, estetikoki baloratzen ditu eta horien gaineko iritzi pertsonal arrazoituak ematen ditu.<br>2.2. Gai topikoen (maitasuna, heriotza, laguntasuna, denbora pasatzea…) tratamenduak ulertzen eta interpretatzen ditu hainbat autore garaikideren poemetan, hizkuntzaren baliabide adierazkorrak baloratuz.<br>2.3. Irakurritako poemetan, bere bizipenekin (orainaldi hurbilenekoena) aurki ditzakeen loturak bilatzen, interpretatzen eta azaltzen ditu.<br>3.1. XX. eta XXI. mendeetako literaturako ipuin literario esanguratsuenak ulertzen eta iruzkintzen ditu, gaiak, egilearen xedea, egiturak eta narrazio ahotsak atzemanez, testuinguru soziokultural eta literarioarekin erlazionatuz eta testuen balorazio estetikoa eginez.<br>4.1. Testu poetikoak eta ipuin literarioak idazten ditu emandako ereduetatik abiatuz, generoaren konbentzioei jarraikiz eta asmo ludiko eta sortzailearekin.<br>5.1. Literatura idatziko egile eta lan nagusienak ezagutzen ditu (XVI-XIX. mendeak): Etxepare, Leizarraga, Axular, Oihenart, Larramendi eta apologistak, Juan Antonio Mogel, Iparragirre, Txomin Agirre, etab., osagarri gisa haien lanen zati txikiak erabiliz.<br>6.1. Egindako irakurketen gaineko lan txikiak idazten ditu, ondorioak eta ikuspuntu pertsonal eta kritikoak emanez eta esan beharrekoak zorroztasunez, argitasunez eta koherentziaz adieraziz.<br>7.1. Behar bezala kontsultatzen eta aipatzen ditu hainbat informazio iturri, idatziz garatzeko, zorroztasunez, argitasunez eta koherentziaz, literaturako curriculumarekin erlazionaturiko gai bat.<br>7.2. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien baliabide askotarikoak erabiltzen ditu bere lan akademikoak egiteko. |

## 6.3. Edukia

- Euskal emakume idazleen biografiak.
- Testua: biografia.
- Testu liburua (Eki Proiektua 4.DBH, Baga, biga higa…).
- Euskal literaturarekin lotura duten webguneak.

Zeharkako edukiak

- **Teknologia/IKT**: idazleen inguruko informazioa bilatzeko erabiliko dituzte batik bat. Batez ere bakoitzaren *Chroomebook*a erabiliko dute, baina klaseko pantaila elektronikoak edo interaktiboak eta bestelako euskarriak (bideoak, kahootak, testuak, musika) erabili ahal izango dituzte proiektua garatzeko.
- **Euskararen erabilera:** kontuan hartuta klaseetan orokorrean ez dela euskara

asko erabiltzen, euskara beraren erabilera aintzat hartuko da.

- **Talde lana:** taldean sortzen den giroa eta talde lanerako gaitasuna kontuan hartu eta landuko da.
- **Elkarbizitza:** aurrekoarekin lotuta, komunitate-egoeretan parte hartzea, entzute aktiboa, eta enpatia sustatuko da.
- **Ekiten ikasi:** bakoitzaren la indibiduala antolatzen, ardurak hartzen eta eremu pertsonal zein akademikoan eraginkortasunean jardutea sustatu.

| **6.4. Edukia eta gaitasunak** | **1. Hizkuntza komunikazioa** | **2. Matematika, zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak** | **3.Gaitasun digitala** | **4. Ikasten ikastea** | **5. Gaitasun sozial eta zibikoak** | **6. Ekimen eta ekintzailetza** | **7. Kontzientzia eta adierazpen kulturalak** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Euskal emakume idazleen biografiak. | | | | | | | |
| Euskal literaturarekin lotura duten webguneak. | | | | | | | |
| Testua: biografia. | | | | | | | |
| Testu liburua (Eki Proiektua 4.DBH, Baga, biga higa…). | | | | | | | |

**6.5. Helburu didaktikoak**

- Ahozko testuak ulertu.
- Idatzizko testuak ulertu.
- Informazioa bilatzea eta egokia aukeratzen jakitea.
- Iturri fidagarriak kontsultatu eta informazio baliagarriak aukeratzen jakitea.
- Iturriak behar bezala aipatzen ikastea.
- Jendaurrean hitz egiteko gaitasuna hobetu.
- Testuen ulermena landu.

- Testuen irakurketa kritikoa.
- Norberaren lana antolatzea.
- Taldean lan egiten jakitea.
- Taldekideen lana ebaluatzea.
- Euskal emakume idazle klasikoak ezagutzea.
- Biografien atalak eta ezaugarriak identifikatzen jakitea.
- Biografiak egiten jakitea.
- Euskal ahozko literaturako generoak, hauen ezaugarriak eta obrak ezagutu eta erlazionatu.
- Euskal literaturarekin lotura duten webguneak ezagutu.
- Euskal literaturarekin lotura duten webguneak erabiltzen jakitea.
- Kritikotasuna sustatu.
- Hausnarketa sustatu.

## 6.7. Metodologia

Unitate didaktikoa proiektuen bidezko metodologian oinarrituko da. Taldekideen konpromisoa eta komunitate nortasuna bultzatzen dituen metodologia da, eta elkarreraginean sortzen dira jakintzak (Carretero, 2009).

Metodologia hori egokia iruditzen zait gaia lantzeko. Unitatean miatze eta ikerketa lanak egin behar dituzte informazioa lortzeko, eta taldean ataza era errazago batean lortu daiteke, gainera, besteekiko elkarlan eta eraginean.

Ikasle bakoitzaren ardurak eta antolaketa sustatzeko ere oso baliagarria da metodologia, gainera, talde txikietan antolatuta komunikazioa errazagoa izaten da, eta horrenbestez, lan egiteko aukera hobea eta eraginkorragoa izaten da.

Azkenik, aukeratutako metodologia errealitatera moldatzen da. Praktikan, arazo eta lan edo ataza asko taldeetan konpontzen dira, eta ikasleek arlo horretan esperientzia behar dute, eta metodologia horren bitartez gaitasun horiek lor daitezke.

## 6.8. Aniztasunaren arreta

Unitate didaktikoa laugarren DBHko taldearentzat diseinatuta dago, sarreran aipatu moduan, taldea nahiko homogeneoa da aniztasunari dagokionez, hala ere, TDAH zantzuak dituen (diagnostikatu gabe) eta gaitasun handiko ikasle bana daude.

Lehenik eta behin, ikastetxeko orientatzailearen eta PTen laguntza eta aholkuak jarraituko dira, pertsona hauek direlako behar dituzten beharrei erantzuten dakiten profesionalak. Beraz, haien gomendioak eta irizpideak jarraituko dira.

Bestalde, klasean hurrengo neurriak hartuko dira ikasleen beharrak asetzeko helburuarekin:

- Saio guztien hasieran eta amaiera tartetxo bat eskainiko da errepaso bat egiteko, eta saioan zehar sorturiko kezkak edo galderak erantzuteko.
- Talde lanetan ez da mugatuko ekarpen edo informazio kopurua. Horrenbestez, adimen handiko ikasleak ekarpen edo informazio gehiago egiteko aukera izango du.
- TDAH zantzuak dituen ikaslea, tutorearekin batera adosturik, aurreko lekuetan eseriko da, leihoetatik urrun.
- Erabilitako fitxetan hitz garrantzitsuak azpimarratuko, edo letra lodiz jarriko dira.

## 6.9. Baliabideak

- *Chromeebook*ak
- Pantaila elektroniko edo interaktiboak.
- Ikasleek ekarritako materiala.
- Iturrien Fitxa.
- Taldekideak ebaluatzeko fitxa.
- Ahotsak webgunea.
- Ahozko Literatura webgunea.
- Basque Poetry webgunea.
- Auñamendi Eusko Entziklopedia webgunea.

- Literatura Zubitegia webgunea.
- Eukal Literatura Hiztegia webgunea.
- Wikiwand webgunea.
- Hizkuntza Politikorako Sailordeko txostena.
- Ekigunea.
- Eki Proiektua, Baga, Biga, Higa… testu liburua.
- APA estiloaren aipuen gida.
- Irakaslearen ebaluazio errubrika
- Ikasleek erabilitako euskarriak.

| **6.10. Denboralizazioa** | **1** | **2** | **3** | **4** | **5** | **6** | **7** | **8** | **9** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Testu liburua (Eki Proiektua 4.DBH, Baga, biga higa…). | | | | | | | | | |
| Euskal literaturarekin lotura duten webguneak. | | | | | | | | | |
| Testua: biografia. | | | | | | | | | |
| Euskal emakume idazleen biografiak. | | | | | | | | | |

| **6.11. Unitate Didaktikoa** | |
|---|---|
| | **Saioa: I** |

- **1. Jarduera (15'):** Unitate didaktikoaren nondik norakoak azaldu.

- **2. Jarduera (5'): T**aldeak osatu.
    - Bizenta Mogel + Rosario Artola (3 pertsona).
    - Maddi Ariztia + Julene Azpeitia (3 pertsona).
    - Rufina Azkue + Rosa Bustinza (3 pertsona).
    - Sorne Unzueta + Julia Gabilondo (3 pertsona).
    - Pilar Lekuona + Baladiñe Albizu (3 pertsona).

- **3. Jarduera (20'):** Gaien inguruko hurbilketa eta testuingurua azalduko da. Horretarako, 8. miatze jarduera egin, eta balada zaharren ezaugarriak ikusi.

- **4. Jarduera (10'):** Saioan emandakoaren inguruko iruzkinak, galderak, hausnarketak, komentarioak eta bestelakoak.

- **Helburuak:**
    - Ahozko literaturari buruzko ezaugarriak aztertzea.
    - Ahozko literatura tradizionala eta ez-tradizionala ezberdintzea.
    - Balada zaharrak ezagutzea eta identifikatzea.
    - *Ahozko Literatura* webgunea ezagutzea.

- **Baliabideak:**
    - Testu liburua 102. orrialdea.
    - Bakoitzaren *Chroomebook*-a.
    - Pantaila digitala.
    - *Ahozko Literatura* (https://ahozkoliteratura.eus/)

| Balada zaharrak eta *Literatura Zubitegia* | Saioa: II |
|---|---|

- **1. Jarduera (10'):** Aurreko saioko errepasoa (balada zaharrak), eta zalantzak edo galderak.

- **2. Jarduera (25'):** *Berreteretxen Kantoria* entzun eta aztertu.

- **3. Jarduera (15'):** *Literatura Zubitegia* webgunea ikusi eta arakatu.
    - Bakarka webgunea ikusiko dute (5').
    - Aurkitutakoa amankomunean jarri, eta pertsonak bilatzeko teknikak eta moduak ikusi (10').

- **4. Jarduera (5'):** Saioan emandakoaren inguruko iruzkinak, galderak, hausnarketak, komentarioak eta bestelakoak.

- **Helburuak:**
    - Entzumena landu.
    - Irakurmena landu.
    - balada zaharren adibidea ikusi.
    - Literatura Zubitegia ikusi eta erailtzen ikasi.

- **Baliabideak:**
    - Testu liburua, 104. orrialdea.
    - Ekigunea webgunea.
    - *Literatura Zubitegia* (https://zubitegia.armiarma.eus/)

| **Maite-Kantuak, Metaforak eta *Ahotsak.eus*** | **Saioa: III** |
|---|---|

- **1. Jarduera (5'):** Aurreko saioko errepasoa, eta zalantzak edo galderak.

- **2. Jarduera (15'):** Testu liburuko 14. miatze-jarduera.
    - Kantu-ondarearen bi bideo ikusi, eta komentatu (10').
    - *Ahotsak.eus* webgunea ikusi, eta bakoitzaren herriko, edo Sakanako herri bateko bideo, edo grabazio bat bilatu (5').

- **3. Jarduera (15'):** Maite-kantuak.
    - Maite-kantuen informazioa irakurri.
    - Maite-kantuen adibide bat entzun: *Lili Bat Ikusi Dut.*

- **4. Jarduera(10'):** Metaforak.
    - Metaforen inguruko informazio irakurri.
    - Metaforak ezberdintzeko ariketa (119. orrialdeko 1. ariketa).

- **5. Jarduera (5'):** Saioan emandakoaren inguruko iruzkinak, galderak, hausnarketak, komentarioak eta bestelakoak.

- **Helburuak:**
    - Maite-Kantuak ezagutzea eta identifikatzea.
    - Metafora ulertu eta identifikatzen jakitea.
    - Ulermena lantzea.
    - *Ahotsak.eus* webgunea erabiltzen jakitea (https://ahotsak.eus/).

- **Baliabideak:**
    - Testu liburua (116, 118 eta 119 orrialdeak).
    - *Ahotsak.eus*
    - *Chroomebook.*
    - Ekigunea.
    - Pantaila interaktiboa.

| Erromantizismoa eta *Auñamendi Eusko Entziklopedia* | Saioa: IV |
|---|---|

- **1. Jarduera (5'):** aurreko saioko errepasoa, eta zalantzak edo galderak.
- **2. Jarduera (10'):** Erromantizismoa.
    - Erromantizismoaren ezaugarriak irakurri.
    - Garaiaren kokapena.
- **3. Jarduera (20'):** Biografiak.
    - Bilintxen, Elizanbururen eta Iparragirreren biografia laburrak irakurri.
    - Biografiak zer diren, eta ezaugarriak aztertu.
- **4. Jarduera (15'):** Auñamendi Eusko Entziklopedia.
    - Lehen irakurritako biografien informazio gehiago bilatu.
- **5. Jarduera (5'):** Taldeen biografia laburrak.
    - Talde bakoitzari esleituriko emakume idazleen biografien nondik norakoak, eta baliabideak C*lassroom*en jarri.
- **Helburuak:**
    - Biografien adibideak ikustea.
    - Erromantizismoaren ezaugarriak aztertu.
    - Auñamendi Eusko Entziklopedia webgunea ikusi eta erabiltzen ikasi.
    - Atazaren kokapena.
- **Baliabideak:**
    - Erromantizismoa: testu liburuko 141 eta 142 orrialdeak.
    - Biografiak: testu liburuko 142 eta 143 orrialdeak.
    - Auñamendi Eusko Entziklopedia (https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/).

| Poesia Soziala eta B*asquepoetry* | Saioa: V |
|---|---|

- **1. Jarduera (10'):** Aurreko saioko errepasoa, eta zalantzak edo galderak.
- **2. Jarduera (10'):** Poesia soziala.
    - Poesia sozialaren informazioa irakurri.

- **3. Jarduera(20'):** Amaia Lasa.
    - Amaia Lasaren bi poema entzun eta irakurri.
    - Poemen gaia eta ezaugarriak aztertu.
- **4. Jarduera (10'):** *Basquepoetry*.
    - *Basquepoetry* webgunean idazleak eta poemak bilatu.
    - Webgunea nola erabili ikusi.
- **Helburuak:**
    - Poesia sozialaren ezaugarriak aztertu.
    - *Basquepoetry* webgunea ikusi eta erabiltzen ikasi.
    - Poemen interpretazioa.
    - Poemen inguruko hausnarketa.
- **Baliabideak:**
    - Poesia soziala: testu liburuko 158. orrialdea eta 166. orrialdeak.
    - Amaia Lasa: Testu liburuko 1665. orrialdea.
    - Ekigunea.
    - Pantaila interaktiboa.
    - *Basquepoetry* (http://basquepoetry.eus/).

| Biografiak, Bibliografiak eta aipuak | Saioa: VI |
|---|---|

- **1. Jarduera (10'):** Aurreko saioko errepasoa, eta zalantzak edo galderak.
- **2. Jarduera (5'):** Biografiak II.
    - Biografien ezaugarriak berrikusi.
    - Biografien egitura zehaztu.
- **3. Jarduera (20'):** Aipuak eta bibliografia.
    - Bibliografia eta plagioaren garrantzia.
    - APA estiloan webguneak aipatzen ikusi.
- **4. Jarduera (15'):** Iturrien Fitxa.
    - Taldeka, idazleen informazioa bilatzen hasi.
    - Iturrien fitxa betetzen hasi.

- **5. Jarduera (5'):** Saioan emandakoaren inguruko iruzkinak, galderak, hausnarketak, komentarioak eta bestelakoak.

- **Helburuak:**
  - Iturriak ongi aipatzen jakitea.
  - Iturrien fitxa betetzen joatea.
  - Taldeka lan egin.
  - Biografiak egiten hasi.

- **Baliabideak:**
  - NUPeko APA gida.
  - Iturrien fitxa.
  - *Chroomebook* ak.
  - Pantaila interaktiboa.

| **Biografiak eta aurkezpena prestatu** | **Saioa: VII** |
|---|---|

- **1. Jarduera (10'):** Aurreko saioko errepasoa, eta zalantzak edo galderak.

- **2. Jarduera (40'):** Biografiak III eta aurkezpenak.
  - Esleituriko idazleen biografiak egiten hasi (taldeka).
  - Aurkezpenak prestatzen hasi.

- **3. Jarduera (5'):** Saioan emandakoaren inguruko iruzkinak, galderak, hausnarketak, komentarioak eta bestelakoak.

- **Helburuak:**
  - Biografiak eta aurkezpenak prestatu.
  - Taldean lan egin.

- **Baliabideak:**
  - NUPeko APA gida.
  - Iturrien fitxa.
  - *Chroomebook* ak.

| |
|---|
| • Pantaila interaktiboa. |

| Emakume idazleak aurkezten I | Saioa: VIII |
|---|---|
| - **1. Jarduera:** Taldeen aurkezpenak.<br>• Talde bakoitzak 10'-15' izango ditu.<br>• Hiru taldeen aurkezpenak (3 talde x 15' = 45' inguru)<br><br>- **Helburuak:**<br>• Ahozkotasuna lantzea.<br>• Jende aurrean hitz egiteko gaitasuna lantzea.<br>• Taldekideak ebaluatzea.<br><br>- **Baliabideak:**<br>• Irakaslearen errubrika.<br>• Ikasleen taldeko ebaluazio errubrika.<br>• Ikasleen euskarriak.<br>• Pantaila interaktiboa.<br>• Ikasleek ekarritako materiala. | |

| Emakume idazleak aurkezten II eta ebaluazioa | Saioa: IX |
|---|---|
| - **1. Jarduera:** Taldeen aurkezpenak.<br>• Talde bakoitzak 10'-15' izango ditu.<br>• Hiru taldeen aurkezpenak (2 talde x 15' = 30' inguru)<br><br>- **Helburuak:**<br>• Ahozkotasuna lantzea.<br>• Jende aurrean hitz egiteko gaitasuna lantzea.<br>• Taldekideak ebaluatzea.<br><br>- **Baliabideak:**<br>• Irakaslearen errubrika.<br>• Ikasleen taldeko ebaluazio errubrika.<br>• Ikasleen euskarriak. | |

| |
|---|
| • Pantaila interaktiboa.<br>• Ikasleek ekarritako materiala. |

| **5.12. Ebaluazio tresnak** |
|---|
| - Lana %50<br>- Aurkezpena %20<br>- Euskararen erabilera %10<br>- Taldekideen nota %10<br>- Jarrera %10 |

# 7. ONDORIOAK

Ondorioei dagokienez, helburuetan azaldurikoak betetzea gustatuko litzateke. Hala ere, proiektua egiteko garaian hainbat ondorio ateratzeko aukera izan dut.

Lehenik eta behin, hezkuntza gizartearekin bat aldatzen doa, baina askotan material, irakasle edo bestelako aldagaiak direla eta, aldaketak ez dira behar bezain garaiz iristen. Unibertsitatean nahiko landu ditugu metodologia berriak, teknologien erabilera klasean, teknika edo metodo zaharkituak…baina errealitatean, asko falta da geletan unibertsitateko giro edo maila hori lortzeko.

Horrenbestez, unibertsitateko gaiak errealitatera moldatu eta praktikan jarri ahal izateko garatu dut lana. Errealitateari egokitutakoa da, baina klasikoki lantzen ez den gai baten lanketarekin osatzen da; hau da, errealitatera eramateko oso unitate didaktiko erraza eta egingarria da.

Bigarrenik, Euskal Hezkuntza eta Literatura ikasgaian literaturari oso tarte txikia eskaintzen zaio, eta horrek klaseetan ondorioak izan ditzake. Literaturaren irakaskuntzak ikasleen garapenerako ezinbesteko alderdia da, eta oso-oso gutxi edo gainetik lantzen da.

Literatura lantzeak alderdi artistikoa lantzea dakar berarekin. Pertsona beraren identitatea, sormen literarioa, errealitatearekiko interpretazioak, balioak garatzea… literaturaren bitartez garatzen dira. Gainera, ezinbesteko alderdia da kritikotasuna lantzeko. Nahiz eta alderdi gramatikalak oso garrantzitsuak izan, ezin da ahaztu ikasleen hezkuntzari buruz ari garenean, haien kritikotasuna lantzea ezinbestekoa dela beraien bizitzetan, eta literaturak hori garatzeko bidea errazten du.

Hirugarrenik, literaturaren garrantzia azpimarratu ondoren, zer nolako literatura irakasten den aztertu behar da. Alonsok (2010) eta nik neuk garaturiko ikerketetan oso argi geratzen da ikastetxeetan irakasten den euskal literatura guztiz androzentrikoa dela. Ez da soilik liburuen edo bestelakoen kontua, curriculum beran ere, ez da hezkuntza literarioaren multzoan emakume bat bera ere aipatzen.

Emakume euskaldun idazlearen baztertze sistematiko bat ematen da ondorioz. Ez dira emakumeen lanak ontzat edo irakasgarritzat hartzen, eta soilik gizon klasikoek egindako lanak eta bizitzak kontuan hartzen dira.

Lan honetan zehar ikusi den moduan euskal emakume idazle nabarmenak egon baziren, baina beraien lanek ez dute inolako oihartzunik izan hezkuntzan. Hori dela eta, testu liburuetako literatura sorturiko unitate didaktikoarekin osatzea ezinbestekoa da. Ikasleek euskal literaturaren historia osoa jakin dezaten. Beraz, literaturan eta bestelako alderdi eta gaiekin genero ikuspegia aztertzea edo lantzea ezinbestekoa da.

Laugarrenik, eta azkenik, eta gaiaren inguruko hausnarketa orokor bezala, bide luzea geratzen zaigu egiteko. Berdintasuna gizartearen alderdi guztietan lortu beharreko justizia soziala da, eta ikastetxeak eta hezkuntza bera ez da gizarteko arazoetatik at dagoen erakundea. Horrenbestez, esparru horretan eragitea eta eraldatzea ezinbestekoa da aurrera egiteko.

# 8. BIBLIOGRAFIA

Alonso, I. (2008). *Euskal literaturaren irakaskuntza Hego Euskal Herriko Batxilergoan Ezagutza kontzeptualetatik gaitasun komunikatiboetarako bidean* (Doktorego Tesia). Euskal Herriko Unibertsitatea.

Alonso, I. (2010). Gaur egungo erronkak literaturaren irakaskuntzan. Garapen iraunkorra eta gizarte erantzukizuna. *Jakin* aldizkaria, 148 zen: 177-178 or.

Álvarez, A.(2021). *Artola Elizetxea, Rosario.* Auñamendi Entziklopedia [on line]. (Kontsulta data: 2021/5/12). Hemendik eskuratua: https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/artola-elizetxea-rosario/ar-15078/

Armiarma. (2021). *Literaturaren zubitegia - Aurkibide alfabetikoa*. (Kontsulta data: 2021/02/23). Hemendik eskuratua: https://zubitegia.armiarma.eus/?p=bid-27

Astiz, I. (2019). *Iluntasunetik argira. Euskal emakume idazleak lantzeko proposamena* (Master Amaierako Lana). Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

Auñamendi Entziklopedia. (2021a). *Albizu, Balendiñe*. Auñamendi Entziklopedia [on line]. (Kontsulta data: 2021/5/12). Hemendik eskuratua: https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/albizu-balendine/ar-7922/

Auñamendi Eusko Entziklopedia. (2021b). *Azpeitia Gómez, Julene*. Auñamendi Entziklopedia [on line]. (Kontsulta data: 2021/5/12). Hemendik eskuratua: https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/azpeitia-gomez-julene/ar-17299/

Auñamendi Eusko Entziklopedia. (2021c). *Bizenta Mogel.* Auñamendi Entziklopedia [on line]. (Kontsulta data: 2021/02/23). Hemendik eskuratua: https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/mogel-bizenta/ar-96516/

Auñamendi Eusko Entziklopedia. (2021d). *Bustinza Ozerin, Errose*. Auñamendi Entziklopedia [on line]. (Kontsulta data: 2021/5/12). Hemendik eskuratua : https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/bustinza-ozerin-errose/ar-34311/

Azurmendi, N. (1987). Emakume idazleak literaturan. Emakumea eta literatura. *Jakin* aldizkaria, 45 zenb: 25-36 or.

Barandiaran, A. (2021). *Unzueta, Sorne.* Auñamendi Entziklopedia [on line]. (Kontsulta data: 2021/5/11). Hemendik eskuratua: https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/unzueta-sorne/ar-141054/

Carretero, M. Reyes (2009). Dossier para el taller de proyectos en el aula: desarrollo por competencias. Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

EIBZ. (2021). *ELK egitasmoa.* (Kontsulta data: 2021/02/23). Hemendik eskuratua: https://sites.google.com/educacion.navarra.es/eskolako-literatur-kanona/hasiera?authuser=0

Estornés, B. (2021). *Azkue, Rufina.* Auñamendi Entziklopedia [on line]. (Kontsulta data: 2021/5/11). Hemendik eskuratua: https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/azkue-rufina/ar-17240/

Etxaniz, X. (2021). *Ariztia, Mayi.* Auñamendi Entziklopedia [on line]. (Kontsulta data: 2021/5/11). Hemendik eskuratua: https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/ariztia-mayi/ar-4015/

Etxeberria, I. (2015). *Literatur kritika feminista zertan den Euskal Herrian* (Gradu Amaierako Lana). Euskal Herriko Unibertsitatea.

Euskal Literaturaren Hiztegia (ELH). (2021). (Kontsulta data: 2021/5/18). Hemendik eskuratua: https://www.ehu.eus/ehg/literatura/idazleak/?p=910

Garmendia, E.(1998). *Balendiñe Albizu. Bidegileak.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritza-Kultura Saila.

Heziberri 2020. (2021). *Bigarren Hezkuntzako unitate didaktikoak.* (Kontsulta data: 2021/02/23). Hemendik eskuratua: http://heziberri.berritzegunenagusia.eus/material-didaktikoa/4-unitate-didaktikoen-adibideak/bigarren-hezkuntzako-unitate-didaktikoak-i/

Hizkuntza Politikorako Sailordetza. *31 emakume idazle.* (Kontsulta data: 2021/02/23). Hemendik eskuratua: http://hedatuz.euskomedia.org/5476/1/31_emakume-idazle.pdf

Kortazar, J. (2021). *Idazlan guztiak. Sorne Unzueta.* Auñamendi Entziklopedia [on line]. (Kontsulta data: 2021/5/12). Hemendik eskuratua: https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/idazlan-guztiak-sorne-unzueta/ar-154322/

Landa, M.E eta Lopez-Mugartza, J.K. (2021). *Euskara eta Literaturaren Ikaskuntza eta Irakaskuntza.* Unibertsitate Masterra Bigarren Hezkuntzako Irakasletzan. Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

Lasarte, G. (2012). *Feminist Agenda. Euskal narratiba garaikidean.* Euskal Herriko Unibertsitatea.

López, M. (2021). *Mogel, Bizenta.* Auñamendi Entziklopedia [on line]. (Kontsulta data: 2021/5/11). Hemendik eskuratua: https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/mogel-bizenta/ar-96516/

Moreno, V. (2000). *Irakurketa, liburuak eta irakurtzera bultzatzea. Hausnarketak eta proposamenak.* Blitz Eskola liburutegiko Bilduma. Sorta Berdea, 2. zen. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Moreno, V. (2015). *Zertarako irakurri? Ulertzeko.* Blitz Eskola liburutegiko Bilduma 4. zenbakia. Sorta Horia. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Mogel, B. (1804). *Ipui onac, ceintzuetan aequituco dituzte euscaldun necazari, ta gazte guciac eracaste ederrac beren vicitza zucentzeco.* (Kontsulta data: 2021/02/23). Hemen eskuragarri:http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/25150

Muruaga, B. (1998). Euskal literatura eta adrozentrismoa. Mirande arazo. *Jakin* aldizkaria, 106. zen: 99-104.

Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculuma. 24/2015 Foru Dekretua, apirilaren 22koa. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 127. zenbakia (2015a). Nafarroako Gobernua.

Nafarroako Foru Komunitateko Batxilergoko Curriculuma. 24/2015 Foru Dekretua, apirilaren 22koa. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 127. zenbakia (2015b). Nafarroako Gobernua.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Liburutegia. Erreferentzia Bulegoa. (2014). Aipuak eta erreferentziak egiteko gida, APA Style. Hemendik eskuratua: https://goo.gl/wfLkJR

NUP. (2021). *UPNA - Ikasketak - Probak nola eginen diren.* (Kontsulta data: 2021/02/23). Hemendik eskuratua: http://www.unavarra.es/eu/sites/estudios/acceso-y-admision/evau-para-estudiantes/desarrollo-de-las-pruebas.html

Salaberria, A. (2020). *Euskal emakume itzultzaile aitzindariak* (Gradu Amaierako Lana). Euskal Herriko Unibertsitatea.

Santazilia, E. (2021). *Euskal Filologiaren Osagarriak.* Unibertsitate Masterra Bigarren Hezkuntzako Irakasletzan. Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

Skolae. (2019). (Kontsulta data: 2021/02/23). Hemendik eskuratua: https://www.educacion.navarra.es/documents/27590/1325202/Libro+SKOLAE+CAST+web.pdf/1ba58d8b-d13b-4f2d-0fc1-9c5e99d5946e

Wikiwand. (2021). *Julia Klaudia Gabilondo*. (Kontsulta data: 2021/05/17). Hemendik eskuratua: https://www.wikiwand.com/eu/Julia_Klaudia_Gabilondo#/Erreferentziak

# 9. ERANSKINAK

1. Taula: Idazlerik aipatuenak Ibaizabaleko testuliburuetan[7]

| | Ibaizabal | |
|---|---|---|
| | maiz | kasuen % |
| Jon Mirande | 17 | 7,3 |
| Txillardegi | 15 | 6,5 |
| Gabriel Aresti | 14 | 6 |
| Bernardo Atxaga | 10 | 4,3 |
| Ramon Saizarbitoria | 10 | 4,3 |
| Bitoriano Gandiaga | 9 | 3,9 |
| Joseba Sarrionandia | 8 | 3,45 |
| Juan Mari Lekuona | 7 | 3 |
| Joxe Azurmendi | 6 | 2,6 |
| Anjel Lertxundi | 5 | 2,15 |
| Joxe Antonio Artze | 5 | 2,15 |
| Koldo Izagirre | 4 | 1,7 |
| Rikardo Arregi | 4 | 1,7 |
| Txomin Peillen | 4 | 1,7 |
| Arantxa Urretabizkaia | 3 | 1,3 |
| Daniel Landart | 3 | 1,3 |
| Ibon Sarasola | 3 | 1,3 |
| Itxaro Borda | 3 | 1,3 |
| Joan Mari Irigoien | 3 | 1,3 |
| Joxe Austin Arrieta | 3 | 1,3 |
| Joxemari Iturralde | 3 | 1,3 |
| Xalbador Garmendia | 3 | 1,3 |
| Amaia Lasa | 3 | 0,9 |
| Beste batzuk (bi aipamen edo gutxiago) | 87 | 37,5 |
| Orotara | 232 | 100 |

(Alonso, 2008:236)

[7] Nabarmentzeak ez dira taula originaletan agertzen, norberak eginikoak dira.

2. Taula: Idazlerik aipatuenak Giltza testuliburuan[8]

| | Giltza | |
|---|---|---|
| | maiz | kasuen % |
| Gabriel Aresti | 31 | 6,5 |
| Bernardo Atxaga | 28 | 5,8 |
| Ramon Saizarbitoria | 21 | 4,4 |
| Jon Mirande | 21 | 4,4 |
| Joseba Sarrionandia | 21 | 4,4 |
| Koldo Izagirre | 16 | 3,3 |
| Txillardegi | 15 | 3,1 |
| Anjel Lertxundi | 15 | 3,1 |
| Xabier Lete | 12 | 2,5 |
| Jose Antonio Artze | 10 | 2,1 |
| Joan Mari Irigoien | 10 | 2,1 |
| Mikel Lasa | 9 | 1,9 |
| Juan Mari Lekuona | 9 | 1,9 |
| Jon Alonso | 9 | 1,9 |
| Laura Mintegi | 9 | 1,9 |
| Pako Aristi | 8 | 1,7 |
| Rikardo Arregi Diaz de Heredia | 8 | 1,7 |
| Txomin Peillen | 8 | 1,7 |
| Andoni Egaña | 8 | 1,7 |
| Juanjo Olasagarre | 8 | 1,7 |
| Arantxa Urretabizkaia | 7 | 1,5 |
| Bitoriano Gandiaga | 7 | 1,5 |
| Joxe Azurmendi | 7 | 1,5 |
| Itxaro Borda | 7 | 1,5 |
| Juan Kruz Igerabide | 7 | 1,5 |
| Arantxa Iturbe | 7 | 1,5 |
| Felipe Juaristi | 7 | 1,5 |
| Inazio Mujika Iraola | 7 | 1,5 |
| Rikardo Arregi | 6 | 1,25 |
| Aingeru Epaltza | 6 | 1,25 |
| Juan Garzia | 6 | 1,25 |
| Xabier Montoia | 6 | 1,25 |
| Edorta Jimenez | 6 | 1,25 |
| Gerardo Markuleta | 6 | 1,25 |
| Joxe Austin Arrieta | 6 | 1,25 |
| Joxemari Iturralde | 6 | 1,25 |
| Patxi Zabaleta | 6 | 1,25 |
| Jose Luis Otamendi | 6 | 1,25 |
| Juan Luis Zabala | 6 | 1,25 |
| Beste batzuk (lau aipamen edo gutxiago) | 82 | 17,1 |
| Orotara | 480 | 100 |

(Alonso, 2008:238)

[8] Nabarmentzeak ez dira taula originaletan agertzen, norberak eginikoak dira.

3. Taula: Idazlerik aipatuenak Elkar testuliburuan

| | Elkar | |
|---|---|---|
| | maiz | kasuen % |
| Gabriel Aresti | 23 | 13,6 |
| Joxe Azurmendi | 14 | 8,3 |
| Bernardo Atxaga | 12 | 7,1 |
| Txillardegi | 12 | 7,1 |
| Ramon Saizarbitoria | 11 | 6,5 |
| Andoni Egaña | 9 | 5,3 |
| Anjel Lertxundi | 7 | 4,1 |
| Jesus Mari Mendizabal | 6 | 3,55 |
| Xabier Amuriza | 5 | 3 |
| Jon Mirande | 5 | 3 |
| Xabier Mendiguren Elizegi | 4 | 2,4 |
| Joseba Sarrionandia | 3 | 1,8 |
| Joxemari Iturralde | 3 | 1,8 |
| Joan Mari Irigoien | 3 | 1,8 |
| Beste batzuk (bi aipamen edo gutxiago) | 52 | 30,8 |
| Orotara | 169 | 100 |

(Alonso, 2008:239)

4. Taula: Idazlerik aipatuenak OT-ko testuliburuetan

| | OT Argitalpenak | |
|---|---|---|
| | maiz | kasuen % |
| Joseba Sarrionandia | 10 | 28,6 |
| Bernardo Atxaga | 8 | 22,9 |
| Juan Martin Elexpuru | 6 | 17,1 |
| Jon Mirande | 5 | 14,3 |
| Mikel Antza | 3 | 8,6 |
| Joxe Austin Arrieta | 2 | 5,7 |
| Ramon Saizarbitoria | 1 | 2,9 |
| Orotara | 35 | 100 |

(Alonso, 2008:240)

**INKESTA**

1. Markatu ezagutzen dituzun idazleak:
   - Bernat Etxepare
   - Bizenta Mogel
   - Lazarraga
   - Rosa Artola
   - Leizarraga
   - Maddi Ariztia
   - Axular
   - Rosa Bustinza
   - Oihenart
   - Julia Gabirondo
   - Juan Antonio Mogel
   - Baladiñe Albizu
   - Iparraguirre
   - Julene Azpeitia

2. Aurrekoak klasean ezagutu dituzu?
   -Bai, klasean ezagutu ditut.
   -Ez.

3. *Ez* erantzun baduzu, non ezagutu dituzu?

4. Markatu ezagutzen dituzuen idazleak:
   - Bernardo Atxaga
   - Arantxa Urretabizkaia
   - Ramon Saizarbitoria
   - Itxaro Borda
   - Anjel Lertxundi
   - Kattalin Miner
   - Fernando Morillo
   - Uxue Alberdi
   - Krimen Uribe
   - Miren Gorrotxategi
   - Miel A. Elustondo
   - Jasone Osoro
   - Joseba Sarrionandia
   - Laura Mintegi

5. Aurrekoak klasean ezagutu dituzu?
   -Bai, klasean ezagutu ditut.
   -Ez.

6. *Ez* erantzun baduzu, non ezagutu dituzu?

7. XVIII. eta XIX. Mende bitarteko euskal emakume idazleen berri zeneukan/daukazu?

8. Emakume idazle horiek landu nahiko zenituzke klasean?

| |
|---|
| 9. Emakume idazle horiek lantzea garrantzitsua dela uste duzu? |
| 10. Bestelako iritzi, ideia, iradokizun, iruzkin… |

**INKESTAREN EMAITZAK**

1. Markatu ezagutzen dituzuen idazleak:

1.Taula: ezagutzen dituzten idazleak (Klasikoak)

| Idazleak | % | kopurua |
|---|---|---|
| Bernart Etxepare | 40.7 | 11 |
| Lazarraga | - | - |
| Leizarraga | - | - |
| Axular | 14.8 | 4 |
| Oihenart | - | - |
| Juan Antonio Mogel | 14.8 | 4 |
| Iparraguirre | 14.8 | 4 |
| Bizenta Mogel | 85.2 | 23 |
| Rosa Artola | - | - |
| Maddi Ariztia | 7.4 | 2 |
| Julene Azpeitia | 70.4 | 19 |
| Rosa Bustinza | - | - |
| Julia Gabirondo | 3.7 | 1 |
| Baladiñe Albizu | - | - |

Iturria: norberak egindakoa.

2. Aurrekoak klasean ezagutu dituzu?

1. Grafikoa: idazle klasikoen ezagutza




Iturria: norberak egindakoa.

3. *Ez* erantzun baduzu, non ezagutu dituzu?
   - Komunikabideetan
   - Liburuetan
   - Kalean
   - Etxean
   - Liburutegian
   - Liburu-dendetan
   - Eskolan
4. Markatu ezagutzen dituzun idazleak:

   2. Taula: ezagutzen dituzten idazleak (garaikideak)

| Idazleak | % | kopurua |
|---|---|---|
| Bernardo Atxaga | 60.7 | 17 |
| Arantxa Urretabizkaia | 10.7 | 3 |
| Ramon Saizarbitoria | 25 | 7 |
| Itxaro Borda | 7.1 | 2 |
| Anjel Lertxundi | 42.9 | 12 |
| Kattalin Miner | 3.6 | 1 |
| Fernando Morillo | 7.1 | 2 |
| Uxue Alberdi | 53.6 | 15 |
| Kirmen Uribe | 7.1 | 2 |
| Miren Gorrotxategi | 28.6 | 8 |
| Miel A Elustondo | - | - |
| Jasone Osoro | 85.7 | 24 |
| Joseba Sarrionandia | 39.3 | 11 |
| Laura Mintegi | 10.7 | 3 |

Iturria: norberak egindakoa.

5. Aurrekoak klasean ezagutu dituzu?

2. Grafikoa: idazle garaikideen ezagutza




Iturria: norberak egindakoa.

6. *Ez* erantzun baduzu, non ezagutu dituzu?
   - Liburuengatik
   - Komunikabideak
   - Klasean
   - Kalean
   - Familiako kide baten bitartez

7. XVIII. eta XIX. mende bitarteko euskal emakume idazleen berri zeneukan/daukazu?

3. Grafikoa: XVIII. eta XIX. mendeetako emakume idazleen ezagutza




Iturria: norberak egindakoa.

8. Emakume idazle horiek landu nahiko zenituzke klasean?

3. Taula: Emakume idazleak lantzeko nahia (21 erantzun)

| | |
|---|---|
| Bai | 14 |
| Ez | 2 |
| Berdin zait | 5 |

Iturria: norberak egindakoa.

9. Emakume idazle horiek lantzea garrantzitsua dela uste duzu?

4. Grafikoa: emakume idazleak lantzeko garrantzia




Iturria: norberak egindakoa.

10. Bestelako iritzi, ideai, iradokizun, iruzkin…

- Ez.
- Ez
- Uste dut garrantzitsua dela ere ikertzea izengoitipean edo gizonen izenean idazten zuten emakume idazleak
- Ezer
- Nire ustez, emakume idazle batzuk ezagutu beharko genituela
- Niri ez zait gustatzen euskaraz irakurtzen, baina ez litzaidake inportako idazlea hauek klasean lantzea
- Ez nuen pentsatzen hain zaharra zela euskal literatura.

- Ongi dago ere bai idazle emakumeak ezagutzea gizonen bezalako inportanteak direlako eta oso estalita daude.
- Ez nuen uste hain zaharra zela euskal literaturaren jatorria.
- Ematea garrantzitsua dela uste dut askotan gizonezkoak bakarrik ematen ditugu
- -
- Oso gai interesgarria iruditzen zatela uste dut.

**ITURRIEN FITXA**

| **Iturrien Fitxa** | |
|---|---|
| **Taldekideen izenak:** | |
| **1. Idazlea:** | |
| **Ahozko Literatura (www.ahozkoliteratura.eus)**<br><br>**Aipua:** | |
| **Ahotsak (www.ahotsak.eus)**<br><br>**Aipua:** | |
| **Auñamendi Eusko Entziklopedia (www.aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus)**<br><br>**Aipua:** | |
| **Literatura Zubitegia (www.zubitegia.armiarma.eus)**<br><br>**Aipua:** | |
| **Basquepoetry (www.basquepoetry.eus)**<br><br>**Aipua:** | |

| **Bestelako webgune edo iturriak** | |
|---|---|
| **Aipua:** | |
| **Aipua:** | |
| **Aipua:** | |
| **Aipua:** | |
| **Aipua:** | |

| **Iturrien Fitxa** | |
|---|---|
| **Taldekideen izenak:** | |
| **2. Idazlea:** | |
| **Ahozko Literatura (www.ahozkoliteratura.eus)**<br><br>**Aipua:** | |
| **Ahotsak (www.ahotsak.eus)**<br><br>**Aipua:** | |
| **Auñamendi Eusko Entziklopedia (www.aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus)**<br><br>**Aipua:** | |
| **Literatura Zubitegia (www.zubitegia.armiarma.eus)**<br><br>**Aipua:** | |
| **Basquepoetry (www.basquepoetry.eus)**<br><br>**Aipua:** | |

| **Bestelako webgune edo iturriak** | |
|---|---|
| **Aipua:** | |
| **Aipua:** | |
| **Aipua:** | |
| **Aipua:** | |
| **Aipua:** | |

## EBALUAZIO ERRUBRIKAK

| | Lorpen-maila: Altua<br>Puntu 1 | Lorpen-maila: Ertaina<br>0.5 puntu | Lorpen- maila: Baxua<br>0 puntu | Osotara |
|---|---|---|---|---|
| **Ebaluazio irizpideak: BIOGRAFIA** | | | | |
| **Biografiaren atalak eta ezaugarriak** | **Biografiaren atalak eta ezaugarriak ondo azaldu eta azaltzen dira.** | **Biografiaren atalak eta ezaugarriak azaltzen dira, baina akatsak daude.** | **Biografiaren ezaugarriak eta atalak gaizki daude.** | |
| **Informazioaren sintesia** | **Informazioaren sintesia eta aukeraketa egokia da.** | **Informazioaren sintesia egokia da, baina hobe zitekeen.** | **Informazioaren sintesia eta aukeraketa ez da egokia.** | |
| **Iturrien erabilera** | **Iturrien erabilera egokia da.** | **Iturrien erabilera egokia da, baina hobe zitekeen.** | **Iturrien erabilera ez da egokia.** | |
| **Bibliografia** | **Bibliografia era egokian azaltzen da azkeneko atalean.** | **Bibliografia agertzen da, baina akatsak ditu.** | **Bibliografia gaizki dago.** | |
| **Hizkuntza-zuzentasuna** | **Testua zuzena da ortografiari, gramatikari, eta idazkerari dagokienez.** | **Testuak akatsak ditu, baina ez dira oso larriak.** | **Testuak akats larriak ditu, eta anitzak.** | |
| | | | | |

| | Lorpen-maila: Altua<br>Puntu 1 | Lorpen-maila: Ertaina<br>0.5 puntu | Lorpen- maila: Baxua<br>0 puntu | Osotara | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ebaluazio irizpideak: AURKEZPENA** | | | | **1. Ikaslea** | **2. Ikaslea** | **3. Ikaslea** |
| **Euskarria eta kalitatea**<br>**(PPTTa, prezzi, argazkiak…)** | **Euskarria ulergarria, logikoa eta logika du. Irudiak eta euskarri grafikoak era egokian erabili dituzte.** | **Euskarriak akatsak ditu, baina logika bat jarraitzen du. Bestelako euskarriak erabili dituzte.** | **Euskarriak akatsak ditu eta ez du logika bat jarraitzen. Ez dira bestelako euskarriak erabili.** | | | |
| **Hizkuntzaren kalitatea**<br>**(ahozkoa)** | **Ahozko adierazpena zuzena da ortografiari, gramatikari, eta idazkerari dagokienez.** | **Ahozko adierazpena zuzena da; hala ere, akats batzuk egin ditu.** | **Ahozko adierazpenean zailtasunak ditu, eta akatsak egiten ditu.** | | | |
| **Denboraren erabilera** | **Denboraren erabilera oso egokia egin da, eta ezarritako minutu kopurua bete dute.** | **Denboraren erabilera egokia izan da.** | **Denboraren erabilera ez da egokia izan, ez dira minutu kopurura iritsi, edo pasa dira** | | | |
| **Bibliografia** | **Bibliografia era egokian azaltzen da azkeneko atalean.** | **Bibliografia agertzen da, baina akatsak ditu.** | **Bibliografia gaizki dago.** | | | |
| **Hizkuntza-zuzentasuna** | **Erabilitako materialetan ez daude akatsik.** | **Erabilitako materialetan akatsak daude, baina ez dira larriak.** | **Erabilitako materialetan akats larriak daude.** | | | |
| | | | | | | |

| | **Lorpen-maila: Altua**<br>**Puntu 1** | **Lorpen-maila: Ertaina**<br>**0.5 puntu** | **Lorpen- maila: Baxua**<br>**0 puntu** | **Osotara** | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Ebaluazio irizpideak: TALDEKIDEEN EBALUAZIO** | | | | **1.Taldekidearen izena:** | **2.Taldekidearen izena:** |
| **Taldekideekiko errespetua** | **Taldekideak momentu oro errespetatu ditu.** | | **Taldekideak ez ditu errespetatu.** | | |
| **Lanarekiko ardura** | **Lanarekiko ardura hartu du.** | **Lanaren ardura ez du beti hartu.** | **Ez du lanaren ardura hartu.** | | |
| **Parte hartzea** | **Beti parte-hartu du taldeko dinamiketan.** | **Noizbehinka parte-hartzen zuen taldeko dinamiketan.** | **Ez zu taldeko dinamiketan parte-hartu.** | | |
| **Euskara** | **Euskaraz hitz egin du une oro.** | **Noizbehinka euskaraz hitz egiten du.** | **Ez du euskaraz hitz egin.** | | |
| | | | | | |